


GIZARTE ZERBITZUEN MUNGIALDE MANKOMUNITATEAREN

VI. ADIKZINO-PLANA

2022-2026



Adikzioen Prebentziorako Zerbitzua
Servicio de Prevención de Adicciones



ARRIETA



BAKIO
udala
BAKIO



GAMIZ-FIKA



LAUKIZ



MEÑAKA



MUNGIA



**GIZARTE ZERBITZUEN MUNGIALDE
MANKOMUNITATEAREN**

VI. ADIKZINO-PLANA

2022-2026





Egilea: Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatea.

Diseinua eta ilustrazioak: Amaia Ballesteros.

Inprimatzea: Gráficas Uncilla SA.

2021eko abenduaren 22an Mankomunitateko ohiko bilkuran aho batez onartuta.

Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzak. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Lege gordailua: BI-02168-2021

Eskubide guztiak jabedunak dira. Agiri honen ataletatik bat ere exin kopia daiteke edo inola edo ezereen bidez ere igorri, baldin eta Mungiaiko Udalak baimenik ematen ez badu idatziz.

AURKIBIDEA

• AURKEZPENA	5
• ESPARRU TEORIKOA ETA ARAUDIA	7
• ESKOLAKO DIAGNOSTIKOA: AZTERKETA KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA	8
• DIAGNOSTIKOAREN EMAITZA	10
• ARLOEN EKARPENAK, UDAL BALIABIDEAK ETA MUNGIALDEKO BIZTANLEAK.....	28
• ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA-PROPOSAMENAK	34

Bizileku dogun eskualdean, 30 urtetik beherakoek osotzen dabe biztanleria osoaren % 30 (7.463 gazte), eta horreen % 61ek 18 urte baino gitxiago ditu (zehatz esanda, 4.582 gazte). Ziur nago prebentzinorako esku-hartzeek arrisku-faktoreak hobetzeko trebetasunak eta laguntzinoa emon daikiezala. Horregaitik, eta orain dala hiru hamarkadatik egiten gabilzan legez, uste dot oraindino be ezinbestekoa dala bizitza- eta aisialdi-ohitura osasungarriak sustatzeko eta adikzinoak prebenitzeko ekintza zehatz eta egonkorrak ezartea, adin txikienei arreta berezia eskaintzea ahaztu barik.

Azken urteotan, mendekotasun-jokabideak ekarri daikiezan konsumo-eredu eta -modu barriei egin behar deutsegu aurre, bai substantziei jagokenez, bai osterantzeko portaerei jagokenez (teknologia barrien erabilera, *online* jokoa, kirol-posturak). Horreek guztiak benetako erronka dakarre eurakaz, eta beharrezkoa da prebentzino-estrategietan zentrauta dagoan begiradea txertatzea.

Baldintza eta zailtasun horreen aurrean, ezinbestekoa da alde zuzenetik diagnostikoa egitea. Horregaitik, Adikzinoen VI. Plana egiteko, aurreko planetan legez, adikzinoakaz eta menpekotasuna eragiten daben jokabideakaz lotutako alderdi nagusiak aztertzen hasi ginan, plana egituratzeko oinarri izan eitezan.

Diagnostikoa, partaidetza-metodologia oinarri hartuta, 2020. urtean egin zan. Tokiko ikuspegi bat lortzea zan gure helburua, eta horren ganean oinarritzea geroko plangintza. Proiektu honetan era aktiboan parte hartu dabe adikzinoakaz lotutako hainbat erakunde eta kolektibotako pertsonak.

VI. Planak jarraipena emoten deutso gure Adikzinoen Prebentzino Zerbitzuak orain dala 30 urtetik egiten dauen beharrari, eta tresna eraginkorra izan gura dau adikzinoen errealidade konplexu eta dimensino anitzekoari erantzuna emoteko. Izan be, horretarako, ikuspegi orokor, kolektibo, integral eta koordinatua behar da, programak, proiektuak, helburuak eta osasuna sustatzeko eta adikzinoak prebenitzeko ekintzak zuzenean edo zeharka partekatzen dituen arloen, erakundeen eta organismoen artean.

Plana egiteko orduan, inplikautako gizarte-eragileen aniztasuna eta ahotsak kontuan hartu dituan plan bat aurkeztuten deusuegu, jakina, Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatea osotzen dogun udalerrietako herritarrak be kontuan hartzen dituan (Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka eta Mungia). Prozesuan zehar, parte-hartzaileek euren ikuspegiak, kezkek eta proposamenak azaltzeko aukerea euki dabe.

2022-2026 aldirako Adikzinoen VI. Eskualde Plan honetan jasota dago hurrengo bost urteetan adikzinoak prebenitzeko plan integrala garatzeko daukagun konpromisoa. Helburu orokorra da substantziakazko adikzinoen eta jokaerazko adikzinoen konsumoa murriztutea, baita pertsonen eta euren familien osasunean daukien eragina murriztutea be, bai komunitatean bai biztanlerian, oro har. Lanketan, tokiko administrazioez ganera, Mankomunitate honetako biztanleakaz hartu-emon zuzena daukien hainbat erakunde eta alkartek parte hartu dabe, eta bai komunitateak berak be.

Dokumentu honen abiapuntua dira, batetik, proiektu hau hasi arte garatu diran programen eta proiektuen alde zuzeneko ebaluazioa, eta, bestetik, herritarren artean adikzinoen fenomenoaren ganeko errealidadearen diagnostikoa. Azken urratsa plangintza operatibo bat egitea izan da. Plangintza horretan jasoten dira lehentasunezko ildoak, estrategiak, helburuak eta gure xede diran kolektiboek zuzendutako ekintzak, hau da, ume, nerabe, gazte eta herritar guztiei zuzendutakoak.

Plangintzan jasota dagoz gaur egun finkatuta dagozan eta era positiboan ebaluata dagozan programak, baina baita eskaera eta behar barriei erantzuteko jarduera eta proiektu barriak be, besteak beste, teknologia barriakaz, kirol-posturakaz eta ausazko jokoakaz lotuta dagozanak.

Ezin dodaz eskertu barik itzi Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatearen Adikzinoen VI. Planaren diseinuan eta prestaketan parte hartu daben persona guztiek egin dabezan ekarpenak eta euki daben inplikazioa. Guztion artean, espero dot Plan hau martxan jarrean gure herritarren bizi-kalidadea eta ongizatea hobetzen laguntzea, adikzinoen fenomenoari buruzko erabakiak hartzeko orduan. Horregaitik, funtsezkoa da tokian tokiko osasuna lantzea, hainbat alderditatik helduta (hezkuntza, prebentzioa, iraunkortasuna...), gure helburuak beteten jarraitzeko konpromiso politiko eta sozial argia oinarri hartuta. Ibilbide-orrria markata dago. Gure eskualdeko osasun indibidual eta kolektiboaren jagotzan eta eraikuntzan aurrera egiten jarraitzea jagoku.

Bakarne Egia Larrauri
Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitateko presidentea

ESPARRU TEORIKOA ETA ARAUDIA

Adikzinoen Prebentzinorako Tokiko Plana da **jagokan organoak onartutako dokumentu baten formalizautako programa eta jarduera egituratu, koordinatu eta planifikatuen multzo ordenatua.**

ADIKZINOEN TOKIKO PLANAREN EZAUGARRIAK

- Mankomunitateak bultzatutako tresna da, eta, horrenbestez, baita bertan planteetan diran ekintzak be.
- Identifiketan diran beharren zerbitzura dago.
- Xede daukan komunitatearen ahalik eta partaidetzarik handiena bultzatu behar dau, plana egiten hasten danetik, egoera behar dan moduan aztertu ahal izateko.
- Adikzinoen fenomenoari osotasunean heltzea da helburu nagusia, zentzunik zabalenean (legezkoak, legez kanpokoak eta jokaereari jagokozanak).
- Tresna dinamikoa da, eta berau eragiten dauen gizarte-egoereagaz batera aldatzen joan behar dau.
- Bateratzailea da; gai da administrazioaren maila desbardinetatik emondako erantzunei eta zerbitzuek egindako ekarpenei koherentzia emoteko, baliabideak errentagarri bihurtuta eta ekimenak harmonizauta.
- Etenik bako ebaluazinoa behar dau.
- Esku-hartze maila biren inguruan (unibersala eta selektiboa) egituratzen diran estrategiak eta esku-hartzeak proposatzen ditu, jarduera-eremuetan banatuta (eskola, familia, komunitatea, aisialdirako eremuak...). Bat dator EAEko Adikzinoen VII. Planagaz.
- Funtsean, eskaria murriztutera bideratutako ekintzak batzen ditu (arriskuak prebenitzea eta murriztutea), bere eskumenen esparruan eskaintzea gitxitzeagaz eta kontroleteagaz lotutako alderdiak ahaztu barik.

Beste alde batetik, honako honeek dira udalek adikzinoen arloan daukiezan eskumenak bermatzen dituan **ERREFE-RENTZIAZKO LEGEAK ETA PLANAK:**

- **Drogamenpekotasunen arloko Aurrezaintza, Laguntzino eta Gizarteratzeari buruzko Legea (1998).**
- **Adikzinoen eta Droga Menpekotasunen ganeko Arreta Integralari buruzko Legea (2016).**
- **Adikzinoen ganeko VII. Plana: Euskadi 2017-2021.**

Tokiko esku-hartzearen lehentasunezko ildoak holan dagoz jasota:

Eskaintzearen kontrola	Droga-trafikoaren eskaintzea eta kontrola murriztuten laguntzea, baita alkoholaren eta tabakoaren sustapenari, publizidadeari eta salmenteari buruz autonomia-erkidegoan eta udaletan dagoan araudia betearazotea be.
Prebentzino unibersala	Babes-faktoreak indartzea eta jarrera eta ohitura osasungarriak sustatzea, hasteko adina atzeratzeko eta 18 urtetik beherako personeren artean jokabide arriskutsuak saihestuteko.
Prebentzino selektiboa	Talde kalteberetan arriskuak murriztutea eta jarrera arduratsuak sustatzea, hasteko adina atzeratzeko, arrisku-portaerak murriztuteko eta erabilera problematikoak saihestuteko.

- **Adingabeak eta alkohola programa.**
- **Tabako-kerik bako Euskadi estrategia.**
- **Euskadiko Osasun Plana 2013-2020.**
- **Euskadiko IV. Gazte Plana (2020).**
- **Gizarte Zerbitzuen Legea (2008).**
- **EAEko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemearen prestazino eta zerbitzuen zorroa (2015).**

ESKOLAKO DIAGNOSTIKOA: AZTERKETA KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

Nerabeen egoerearen diagnostikoa egin da; horretarako, ikasleen artean galdetegi bat egin da 2020ko urrian (COVID-19ak eragindako pandemia-sasoi betean), honako gai honeen ganeko galderak eginda:

- Aisialdiko ohiturak (jarduerak, gastuak).
- Legezko eta legez kanpoko substantzien konsumoa (ohiturak, prebalentzia, hasteko adina).
- Internet eta sare sozialen erabilera.
- Posturak egitea eta ausazko jokoetan jardutea.
- Substantzien, jokoaren eta sare sozialen eskuragarritasuna.
- Noizbehinkako eta ohiko erabileren arriskuaren perzeptzioa.
- Konsumoa familia-ingurunean.
- Informazio-mailea (drogak, posturak, ausazko jokoak eta sare sozialak) eta bitartekorik gogokoenak.

Honako txosten honeek hartu dira erreferentzia legez:

- "Drogak eta Eskola IX" (2019) – Droga-mendekotasunen Deustuko Institutua. 2016-2017 ikasturtean EAEn bigarren mailako ikasketak egiten dabilzan 12-22 urte bitarteko ikasleak.
- "Euskadi eta Drogak" (2017) – Eusko Jaurlaritzea. EAEko 15-74 urte bitarteko biztanleak. Landa-lana 2017ko amaie-rearen eta 2018ko hasierearen artean egin zan.
- "Estudes" (2020) – Osasun Ministerioa. Estatu mailan bigarren mailako ikasketak egiten dabilzan 14-18 urte bitarte-ko ikasleak. Landa-lana 2019ko hasieran egin zan.
- "Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatearen 2015-2019 aldirako V. Adikzinoen Plana".


DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK

Mungialde Mankomunitatea honako udalerrri honeek osotzen dabe, eta gitxi gorabeherako azalera eta gaur egungo populazioa honako honeek dira:

Municipios	Mungia	Bakio	Gamiz-Fika	Laukiz	Meñaka	Arrieta
Udalerrria (biztanleak)	17.755	2.825	1.397	1.240	758	577
Azalera (km ²)	52,12	16,12	15,50	8,16	12,70	14,50

Diagnostiko hori egiteko, 442 nerabek eta 11 urtetik gorako ikasle gaztek osotu dabe lagina, Mungialdeko ikastetxeetan DBHko, Batxilergoko, Erdi Mailako Heziketa Zikloetako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako Programetako ikasketak egiten dabilzanek: Bentades Ikastetxea, Larramendi Ikastola, Mungia OIH-FPB eta IES Mungia BHI.


Parte-hartzaileen % 50,70 gizonak dira eta % 40,30 emakumeak, eta biztanleriaren % 1,10ek genero ez binarioa adierazo dau.



Adinaren eta ikasketa-mailearen arabera banaketari jagokonez:


Laginaren banaketea, adinaren arabera

Adina	Parte-hartzaile kopurua	Parte-hartzaileen portzentajea
11	7	% 1,6
12	67	% 15,2
13	69	% 15,6
14	78	% 17,6
15	85	% 19,2
16	59	% 13,3
17	48	% 10,9
18	13	% 2,9
19tik aurrera	5	% 1
ED/EE:	11	% 2,5
Guztira	442	% 100




DIAGNOSTIKOAREN EMAITZA

1. AISIALDIKO OHITURAK ETA DENPORA LIBREA BETETEA




Denpora librean zelan beteten eban galdetu jaken. Ezagunen artean, honako honeek dagoz: "Lagunakaz egotea" (% 89) edo "kuadrilleagaz egotea" (% 80). "Musikea entzutea" (% 84) eta "kirola egitea" (% 69), "Berba egitea eta edukiak sare sozialetara igotea" (% 62) edo "ordenagailuagaz edo konsoleagaz jokatzeko" (% 61). Jarduera horreekin Mungialde Mankomunitatearen aurreko Adikzinoen Planean ikusitako osorik antzekoak dira.



Galdetegiari erantzun deusien gazterik gehienek (% 67) adierazoz eban alkarteren bateko kide zizala. Zifra hori Mungialde Mankomunitateko Adikzinoen V. Planean lortutakoa baino apur bat handiagoa da; izan be, une haretan parte hartu eban ikasleen % 63 zan alkarteren bateko kide.

Alkarreak aztertzean, gehienak kirol-, musika-, aisialdi-arlokoak... dira.

Alkarterik gehienak kirol-arlokoak dira, eta nabarmentzekoa da kirol-kluben eta, batez be, futbol eta saskibaloitarteetan parte hartzen dabela. Beste jarduera fisiko adierazgarri bat da dantza eskoletako parte-hartzea, batez be euskal dantzei eta dantza modernoari jagokenez.



Neurri txikiagoan, kontaktu edo borroka kirolak ageri dira, baita beste batzuk be, besteak beste, esku pelotea, arrauna, igeriketea, hockeya, eskubaloia, errugbia, atletismoa, waterpolo edo gimnasia erritmikoa. Neurri txikiagoan, *skate-a*, hipikea, padela, tenisa, surfa, piragua, yoga, txirrindularitza, mendizaletasuna eta boleibola be egiten ebezan parte-hartzaileek.

Musikearen arloan, bandetako kide zizala edota musika eskolara joaten zizala adierazoz eban askok.

Aisialdiko beste alkarre batzuei jagokenez, antzerkia, pintorea eta, oro har, eskaut taldeak aitatu ziran.


Astero aisialdi-jardueretara bideratutako diruari jagokenez, % 46,2k 5 € edo gutxiago gastetan ditu, eta % 34,9k 5 € baino gehiago gastetan ditu, 20 € gehienez.

2. LEGEZKO ETA LEGEZKANPOKO SUBSTANTZIEN KONSUMOA

Jarraian ageri dan grafikoan adierazota dago ze maiztasunetan konsumitzen diran substantziarik ohikoenak: alkohola, haxixa/marihuana eta tabakoa. Alkohola da gazteek gehien konsumitzen daben substantzia, bai azken hilabetean (% 21) bai azken astean (% 6,8).

Substantzia ohikoenen konsumo maiztasuna

Taulan, presentzia txikiagoa daukien beste substantzia batzuen konsumoa aitutzen da. Gazterik gehienek, % 75ek baino gehiagok, ez dabe inoz horreetako bat be konsumidu.



Legez kanpoko beste substantzia batzuen kontsumoaren prebalentzia

Kontsumoaren maiztasuna	Inoz ez	Azken hilabeteetan	ED/EE
Substantziak			
LSD/Haluzinogenoak	% 78,1	% 0,2	% 21,7
Anfetaminak	% 78,3	% 0,5	% 21,3
Kristala	% 77,8	% 0,2	% 21,9
Ketamina	% 78,1	% 0,2	% 21,7
Estasia	% 78,1	% 0,2	% 21,7
Kokaina	% 77,8	% 0,9	% 21,3
Nasaigarriak (errezeta barik)	% 76,9	% 1,1	% 21,9
Heroinea	% 79		% 21
Inhalagarriak	% 77,6	% 0,2	% 22,2

TABAKOAREN KONTSUMOA

Alkoholaren atzetik, tabakoa da gehien kontsumitzen dan bigarren substantzia psikoaktiboa. Oro har, nerabezaroan hasten da kontsumitzen, eta, normalean, alkoholari lotuta egoten da. Azkenaldian, tabakoa kontsumitzeko modu barriak sortu dira, hau da, zigarro elektronikoak.

Kontsumoaren prebalentziari jagokonez, galdetegiari erantzun deusien biztanleen erdiek baino gehixeagok ez dabe inoz probau tabakoa, ez ohiko zigarrorik (% 62,7), ez elektronikorik (% 66,5).

Zigarroen kontsumoaren prebalentzia, "Drogak eta Eskola IX 2019" ikerketan, "Mungialde Mankomunitateko Adikzinoen V. Planean" eta gaur egun Mungialdean dagozan zifrak alderatuta

Prebalentzia	Drogak eta Eskola IX 2019		Mungialdeko V. Adikzinoen Plana 2015		Mungialde 2020	
	Ohikoa	Elektronikoa	Ohikoa	Elektronikoa	Ohikoa	Elektronikoa
Inoz ez	% 64,9	% 74,2	% 67,2	-----	% 62,7	% 66,5
Egunero	% 12,6	% 1	% 16,19	-----	% 3,8	% 0,5
ED/EE	% 3	% 18,4	% 0	-----	% 18,6	% 19,9

Prebalentziaren bilakaerari jagokonez, bai substantziak inoz kontsumidu ez dabezan personeren prebalentzia, bai egunero kontsumoarena apur bat txikiagoak dira "Drogak eta Eskola IX" (2016-2017) azterlanean zein Mungialde Mankomunitatearen Adikzinoen V. Planean ikusitakoa baino.

Tabakoaren kontsumoa eta adina estatistikoki lotuta dagoz. Adinak gora egin ahala, tabakoa kontsumitzeko maiztasunak be gora egiten dau apurka-apurka, ohitura legez ezarri bada.

13 eta 14 urte bitartekoen artean, noizbehinkako konsumoa handiagoa da; % 10 inguruk esan dau nonoz konsumidu dauela. 15 eta 16 urte bitartean, noizbehinkako konsumoa handia da, nonoz konsumidu dauela adierazo dau-eta parte-hartzaileen % 25ek. Nabarmentzekoa da, era berean, 16 urteko gazteen % 15ek eta 18 urteko gazteen % 12,5ek egunero konsumitzen dabela.


Zigarro elektronikoaren kasuan, antzekoa da erabilera-maiztasunaren adinaren arabera. 13 urtekoan hasten da konsumorik ohikoena, eta 15/16 urte daukien gazteen artean igoten da. Adin horretan, gazteen % 25ek nonoz konsumidu dauela adierazo dau.

Tabako eta zigarro elektronikoaren konsumoaren prebalentzia, adinaren arabera

ADINA	INOZ EZ		NONOZ		AZKEN HILABETEAN		EGUNERO	
	Tabakoa	Elektronikoa	Tabakoa	Elektronikoa	Tabakoa	Elektronikoa	Tabakoa	Elektronikoa
10 urte	% 100	% 100	-----	-----	-----	-----	-----	-----
11 urte	% 100	% 100	-----	-----	-----	-----	-----	-----
12 urte	% 96	% 94,5	% 4	% 5,5	-----	-----	-----	-----
13 urte	% 84	% 86	% 9	% 12,5	% 5	% 2	% 2	
14 urte	% 84	% 79	% 12,5	% 16	% 1,5	% 3	% 1,5	% 1,5
15 urte	% 67	% 72	% 25	% 25	% 5	% 2	% 3	-----
16 urte	% 56,5	% 74,5	% 24,5	% 25,5	% 4	-----	% 15	-----
17 urte	% 71,5	% 95	% 12	% 5	% 12	-----	% 4,5	-----
18 urte	% 75	% 87,5	-----	% 12,5	% 12,5	-----	% 12,5	-----
19 urte	% 100	% 100	-----	-----	-----	-----	-----	-----
20 urte	% 100	% 100	-----	-----	-----	-----	-----	-----
21 urte	-----	% 100	-----	-----	% 100	-----	-----	-----
27 urte	-----	-----	-----	-----	% 100	-----	-----	-----



Tabakoaren konsumoari eta **genero-desbardintasun posiblei** jagokenez, esan geinke noizbehinkako konsumoa handiagoa dala Mungialdeko neska gazteen artean: emakumeen % 59 eta gizonen % 41. Halanda be, gizonek konsumitzen dabe gehien tabakoa egunero (% 71). Emakume erretzaileen portzentajearen % 24koa da.




Zigarro elektronikoaren kasuan, emakumeak dira, barriro, konsumitzaile nagusiak.

Konsumitzen hasteko batez besteko adinari jagokenez, goiztiarragoa da zigarro elektronikoaren kasuan, ze 13 bat urte gaz hasten dira erretzen (13,10); izan be, ohiko zigarroaren konsumoa adin horren amaieran hasten da (13,82).



Erretzen hasteko adin horreek EAEko batez bestekoa baino goiztiarragoak dira, "Euskadi eta Drogak" (2017) azterlanaren arabera; izan be, ohiko tabakoa probetako batez besteko adina ia 17 urteetan kokatzen da, eta ia 19 urteetan ohiko konsumoaren hasierara.

Konsumorako lekuri gogokoenei jagokenez, aire zabala, kaleak edo plazak nabarmentzen dira. Etxean gehiago konsumitzen dira zigarro elektronikoak (% 22,5); eta lonjetan, barriz, ohiko tabakoa (% 23).




Mungialdeko adingabeek tabakoa eskuratzeko dituen **zailtasunei edo erraztasunei** jagokenez, erdiek baino gehiagok onartzen dabe ohiko tabakoa erosteko arazorik ez daukiela, eta hori errazago lortzen dabela modalidade elektronikoa baino.

Familia-ingurunean tabakoaren kontsumoari dagokionez, galdetegiari erantzun deutsien 442 personatik 266k, erdiek baino gehiagok, adierazo eben ohiko

tabako-kontsumoak gertatzen zirala bizikideen familia-ingurunean. Ia erdiak (% 42,9) gurasoak ziran.

Ohiko tabakoaren-kontsumoa Mungialdeko etxeetan

Aita / Ama / Legezko arduradunak		Neba-arrebak		Beste senide batzuk	
Kop.	Portzentajea	Kop.	Portzentajea	Kop.	Portzentajea
114	42,9%	29	11%	178	67%




Ohiko tabakoaren noizbehinkako edo ohiko erabilereak dakarren arriskuaren perpezpinoa aztertzean, % 83,1ek adierazo dau ohiko kontsumoak arrisku handia (% 55) edo ertaina (% 28,1) dakarrela. Laginaren erdiak (% 51,8) uste dau noizbehinkako kontsumoak arrisku ertaina daukala, eta ohiko kontsumoaren kasuan be erdiek (% 55) uste dabe arrisku handia daukala. Hau da, kontsumoaren maiztasuna handitzen dan heinean, lotutako arriskuaren perpezpinoa handitu egiten da.

Jarraian, ikusi geinke gaur egun Mungialdean ohiko kontsumoari lotutako arriskuaren perpezpinoa eta 2017an Euskadiko biztanleriaren arloan aztertutakoa, oro har, oso antzekoak dirala.

Tabako kontsumoaren arriskuaren/larritasunaren perpezpinoaren alderaketea: 2017an EAEn eta gaur egun Mungialdean

	Euskadi eta Drogak (2017)	Mungialdeko datuak (2020)
Arrisku/larritasunik ez	% 4,8	% 5,7
Arrisku/larritasun ertaina	% 26,9	% 28,1
Arrisku/larritasun handia	% 67,2	% 55
ED/EE	% 1,1	% 11,3

ALKOHOL KONSUMOA



Alkohola da, alde handiz, substantzia psikoaktiborik hedatuena ikasleen artean, Estatu mailako azken "Estudes" txostenaren arabera (2019).

Txostenean jasoten diran datuei jagokenez, datu pozgarriak dira; izan be, gazteen ia erdiek (% 47,5) adierazo dabe ez dabela inoz substantzia hori probau, eta heren batek (% 29), gitxi gorabehera, azken hilabeteetan konsumidua da.

Emaitzek orain dala 3 edo 4 urte baino portzentaje baikorragoak erakusten dabez EAEn. "Drogak eta Eskola IX" txosteko datuek adierazoten dabe EAeko gazteen % 40k alkohola konsumidu ebala azken hilabetean; gaur egun, oster, % 29k aitatu dau maiztasun hori. "Euskadi eta Drogak" txostenean jasoten diran emaitzak aurretik aitaturakoak baino handiagoak dira, eta edizino honetan eskuratu diran datuak be hobeak dira "Mungialde Mankomunitatearen Adikzinoen V. Planean" eskuratutakoak baino; izan be, kasu haretan, % 22,2k esan eban inoz ez ebala alkoholik konsumidu, eta azterlan honetan, barriz, % 47,5ek.

Oro har, alkohol konsumoaren portzentajeak, maiztasuna edozein dala be, txikiagoak dira gazteen artean biztanle guztien artean baino.

Alkohol konsumoaren maiztasunaren alderaketea: 2016-2017an EAEn eta gaur egun Mungialdean

Konsumoaren maiztasuna	Drogak eta Eskola IX (2016-2017)	Euskadi eta Drogak (2017)	Mungialdeko V. Adikzinoen Plana 2015-2019	Mungialde 2020
Inoi ez	% 33,2	% 11,6	% 35,34	% 47,5
Azken hilabetean	% 40,3	% 69,6	-----	% 29
Azken astean	% 8,9	-----	-----	% 7
Egunero	% 1,8	% 0,7	% 0,92	% 0,5


Adinaren aldagaiari jagokonez, handitu ahala, konsumoaren maiztasunak be gora egiten dau. 13 urtetik 14ra bitartean, nonoz probau dabela esaten daben nerabeen portzentajea % 26,5ekoa da. 15 eta 16 urte bitartekoen % 60k nonoz probau dau alkohola.

Datu honeek "Euskadi eta Drogak" (2017) txostenean azaldutakoakaz alderatu ezker, antzeko patroia ikusi geinke konsumo-maiztasunaren bilakaeran.

Alkoholun edarien konsumoaren maiztasuna, adinaren arabera

ADINA	ALKOHOL KONSUMOAREN MAIZTASUNA			
	Inoz ez	Nonoz	Azken hilabetean	Egunero
10 urte	% 100			
11 urte	% 100			
12 urte	% 91	% 7,4	% 2	
13 urte	% 86	% 12,5	% 2	
14 urte	% 65	% 26,5	% 9	
15 urte	% 36	% 60	% 4	
16 urte	% 25	% 60	% 13	% 2
17 urte	% 38	% 44	% 18	
18 urte	% 30	% 40	% 30	
19 urte		% 100		
20 urte		% 100		
21 urte			% 100	

Generoaren araberako prebalentziei jagokenez, ez da alde esanguratsurik igarri, konsumoa bardindu egiten da-eta genero bien artean.



Konsumitzen **hasteko batez besteko adina** ia 14 urtekoa da (13,74), hau da, orain dala 3-4 urteko "Drogak eta Eskola IX" azterlanean eta Mungialdeko Adikzinoen V. Planean baino apur bat handiagoa (13,22 urtekoa eta 12 urtekoa, hurrenez hurren), baina 2017an EAEko biztanleria orokorrarena baino txikiagoa (16,8 urte).




Ohiko lekuei jagokenez, tabakoaren kasuan legez, ikusi dogu emaitzak Mungialdeko Adikzinoen V. Planean lortutako antzekoak dirala. Gустukoena aire zabaleko espazioa da oraindino, eta haren ondoren dagoz lonjak, tabernak eta etxea bera.



Mungialdeko nerabeek alkohola eskuratzeko daukiezan aukerei jagokenez, datuek erakusten dabe, tabakoagaz gertatzen zan legez, galdetegiari erantzun deusien gazteen ia erdiek (% 47) zailtasun barik lortu ahal dabela.



Erosteo aukera nagusia adinez nagusia dan persona bati supermerkatuan eroste eskatzea da (% 30), eta ondoren dagoz norberak supermerkatuan (% 15), taberna, pub edo diskoteka baten (% 15) eskuratzea.



Konsumoaren maiztasunari begiratzen ba-deusagu, ikusi geinke konsultatuko gazteen % 55ek kasu berezietan konsumitzen dabela.

Etxean bizi diran personek egiten daben edari alkoholun konsumoari jagokenez, inkestan parte hartu daben personen erdiek baino gehiagok (442tik 268k) adierazo dabe konsumidu egiten dala, batez be, aitaren, amaren edo legezko arduranaren eskutik (% 82,5).

Alkohol konsumoa Mungialdeko etxeetan

Aita / Ama / Legezko arduradunak		Neba-arrebak		Beste senide batzuk	
Kop.	Portzentajea	Kop.	Portzentajea	Kop.	Portzentajea
221	82,5%	66	24,5%	160	60%

Alkoholaren noizbehinkako edo ohiko erabilerak dakarren arriskuaren perpezpinoari jagokenez, % 55,4k uste dau ohiko konsumoak arrisku handia dakarrela. Noizbehinkako konsumoari jagokenez, erdiek (% 50,2) arrisku ertain legez sailkatzen dabe, eta % 20 inguruk uste dau ez dakarrela ezelango arriskurik.

EAEko biztanleria orokorrari jagokenez "Euskadi eta Drogak" txostenean jasota dagoan arrisku-perpezpinoagaz alderatuta, Mungialdeko gazteen arrisku-perpezpino biztanleria orokorraren perpezpinoaren oso antzekoa da, edozein adin tartetan.



Alkohol kontsumoaren arriskuaren/larritasunaren perzeptzioaren alderaketa: 2017an EAEn eta gaur egun Mungialdean

	Euskadi eta Drogak (2017)	Mungialdeko datuak (2020)
Arriskurik ez/larria	% 5,9	% 4,8
Arrisku/larritasun ertaina	% 29,5	% 28,7
Arrisku handia/larria	% 63,4	% 55,4
ED/EE	% 1,2	% 11,1

LEGEZ KANPOKO DROGEN KONSUMOA: HAXIXA, MARIHUANA

Kalamua da Mungialdeko gazteek aukeratzen daberen legez kanpoko lehenengo substantzia. % 14,2k nonoz konsumidu dau substantzia hori.




Datu horreek eta "Drogak eta Eskola IX" zein "Euskadi eta Drogak" azterlanetakoak konparetan badoguz, ikusiko dogu Mungialdeko kalamu kontsumoa batez bestekoa baino txikiagoa dala. Era berean, Mungialdeko gazteen azken hilabeteko kontsumoa aitatu diran txosten biotan adierazotako portzentajea baino txikiagoa da.

Kalamu kontsumoaren maiztasunaren alderaketa: 2016-2017an EAEn eta gaur egun Mungialdean

Kontsumoaren maiztasuna	Drogak eta Eskola IX (2016-2017)	Euskadi eta Drogak (2017)	Mungialde 2020
Inoiz ez	% 68,9	% 53	% 66,7
Azken hilabetean	% 16,5	% 13,3	% 9,5
Azken astean	% 7,1		% 3,6
Egunero	% 3,3	% 3,9	% 1,1

Generoaren arabera egon leitekezan desbardintasunei jagokenez, "Euskadi eta Drogak" (2017) azterlanean gizon konsumitzaileren portzentaje handiagoa islatzen dan arren, Mungialdeko noizbehinkako kontsumoa nahiko bardinduta dago neska eta mutil gazteen artean. Eguneroko kontsumoan agertzen dira alde handiak: mutilen % 80k onartzen dau konsumitzen dauela, eta nesken % 20k.



Adinaren faktoreari jagokenez, 15 urteko gazteen % 29k konsumidu dau nonoz.

Haxix/marihuana konsumoaren prebalentzia adinaren arabera

ADINA	Inoz ez	Nonoz	Azken hilabeteen	Egunero
10 urte	% 100			
11 urte	% 100			
12 urte	% 98	% 2		
13 urte	% 96	% 2	% 2	
14 urte	% 95	% 3	% 2	
15 urte	% 71	% 21	% 8	
16 urte	% 61	% 26	% 9	% 4
17 urte	% 66	% 22	% 10	% 2
18 urte	% 86	% 14		
19 urte	% 100			
20 urte	% 100			
21 urte				% 100
27 urte				% 100

Haxixa/marihuana **konsumitzen hasteko batez besteko adina** 14,44 urtekoa da, eta, "Drogak eta Eskola IX" azterlanaren arabera, konsumitzen hasteko batez besteko adina 14,41 urtekoa zan; halanda ze, ez da aldaketa nabarmenik igarri.

Haxixa/marihuana lortzeko eskuragarritasunari jagokonez, Mungialdeko gazteen % 30ek adierazo dau erraza dala eskuratzea.



Etxean haxixa/marihuana konsumitzeari jagokonez, aurreko substantziakaz konparauta joera aldatu egin dala ikusi dogu; izan be, kasu horretan, bizikideen artean haxixa/marihuana konsumitzen dala adierazo eben 50 pertsonen artean, eta % 42k adierazo eban neba-arrebak zirala konsumitzaileak.

Haxix/marihuana konsumoa Mungialdeko etxeetan

Aita / Ama / Legezko arduradunak		Neba-arrebak		Beste senide batzuk	
Kop.	Portzentajea	Kop.	Portzentajea	Kop.	Portzentajea
6	% 12	21	% 42	31	% 62



Arriskuaren perzepzioari jagokonez, Mungialdeko gazteen % 65ek uste dau ohiko konsumoak arrisku handia dakarrela. Nabarmendu behar da % 44k arrisku-maila bera esleitzen deusala noizbehinkako konsumoari.

Haxix/marihuana konsumoaren arriskuaren/larritasunaren perzepzioaren alderaketa: 2017an EAEn eta gaur egun Mungialdean

	Euskadi eta Drogak (2017)	Mungialdeko datuak (2020)
Arrikurik ez/larria	% 4,9	% 4,5
Larritasuna/arrisku ertaina	% 19,5	% 15,8
Arrisku handia/larria	% 62,1	% 64,9
ED/EE	% 13,4	% 14,7

LEGEZ KANPOKO GANERAKO DROGEN KONSUMOIA

Haxixaren ondoren, mediku-errezetarik bako nasaigarrien konsumoa zan altuena (% 1,1 azken hilabeteetan), eta ondoren egozan kokainearena (% 0,9 azken hilabeteetan) eta anfetaminena (% 0,5 azken hilabeteetan).

Aitatzekoa da konsultautako substantzia guztietan inoz probau bako gazteen portzentajea % 77tik gorakoa zala, eta parte-hartzaileetako batek be ez ebalatu konsumorik adierazo azken astean edo egunero.

Legez kanpoko beste substantzia batzuen konsumoaren prebalentzia

Konsumoaren maiztasuna	Inoz ez	Azken hilabeteetan	ED/EE
Substantziak			
Nasaigarriak (mediku-errezeta barik)	% 6,9	% 1,1	% 21,9
Kokaina	% 77,8	% 0,9	% 21,3
Anfetaminak	% 78,3	% 0,5	% 21,3
LSD/Haluzinogenoak	% 78,1	% 0,2	% 21,7
Ketamina	% 78,1	% 0,2	% 21,7
Estasia	% 78,1	% 0,2	% 21,7
Kristala	% 77,8	% 0,2	% 21,9
Inhalagarriak	% 77,6	% 0,2	% 22,2
Heroina	% 79		% 21


"Drogak eta Eskola IX" azterlanean deskribidu diran emaitzen arabera, ikasleen artean psikofarmakoen eta mediku-errezeta bako nasaigarrien erabilerak balio adierazgarriak ditu, droga estimulatzaileen mailan. Mungialdeko gazteen artean be islatzen da hori.

Hasteko batez besteko adinari jagokonez, txikiena errezeta bako nasaigarrien konsumoagaz lotuta dago (11,3 urte); kokainearena eta anfetaminena, barriz, nahiko bardinduta dagoz (15,4 eta 15 urte, hurrenez hurren).

Zifra horreek bat datoz "Drogak eta Eskola IX" azterlanean jasotakoakaz; izan be, kokainea konsumitzen hasteko batez besteko adina 15,25 urtekoa dala jasoten da bertan, eta anfetaminak konsumitzen hastekoa 15,10 urtekoa. "Euskadi eta Drogak" azterlanean (2017), esperimenetako konsumitzen hasteko batez besteko adina 22,27 urtekoa zan kokainearen kasuan, eta 20,64 urtekoa, anfetaminaren kasuan. Datuak alderatu ezkerre, ikusi leiteke eskola-umeak gero eta adin txikiagoetan hasten dirala substantzia horreek konsumitzen.

Konsumitzeko lekuari jagokonez, LSDa, anfetaminak, kristala, estasia eta inhalagarriak aire zabaleko espazioetan konsumitzen dira, eta errezeta bako nasaigarriak, barriz, etxean.

Mungialdean konsumitzen diran **legez kanpoko substantziarik ohikoenak lortzeko eskuragarritasunari** jagokonez, kokaina da eskuratzen errazena (% 11,3); ondoren, errezeta bako nasaigarriak dagoz (% 9,3), eta, azkenik, anfetaminak (% 7).




Etxean legez kanpoko drogak konsumitzeari jagokonez, gehien konsumitzen zen substantzia nasaigarriak ziran (% 3,4). Ondoren, kokaina (% 1,8) eta anfetaminak (% 1,4) dagoz.



Nasaigarri eta kokaina kontsumoa Mungialdeko etxeetan


Substantzia	Aita / Ama / Legezko arduradunak		Neba-arrebak		Beste senide batzuk		Guztira
	Kop.	Portzentajea	Kop.	Portzentajea	Kop.	Portzentajea	
Nasaigarriak	5	% 33	1	% 7	9	% 60	15
Kokaina			1	% 12,5	7	% 87,5	8



Noizbehinkako zein ohiko kontsumoari lotutako **arrisku handiko perzeptzioei** jagokenez, heroina nabarmentzen da lehenik, eta kokaina, haren ostean; estasia hirugarren postuan dago.

Arrisku handiei gutxienez lotzen diren substantziak, noizbehinkako zein ohiko kontsumo-maiztasunetan, nasaigarriak, inhalagarriak eta LSDa dira.

JOKAERAZKO ADIKZINOAK: INTERNET, SARE SOZIALAK, BIDEO-JOKOAK, POSTURAK ETA AUSAZKO JOKOAK



Teknologia barriak lotutako aisialdi-moduak oso presente dagoz gaur egungo gazteen artean. Hori dala-eta, Mungialdeko ikasleei egindako galdetegi honetan berriaz aztertu ziran horreei lotutako kontsumo-ohiturak.

Eguneroko kontsumo-denporeari jagokenez, ikusi geinke parte-hartzaileen % 23k batez beste 1-2 ordu igaroten zituela egunean sare sozialetan, Interneten nabegetan edo bideo-jokoetan jokatzeko. Antzeko portzentajeak (% 20,5) adierazten eban egunean 2-3 ordu igaroten zituela jardueran.

Portzentajeak txikiagoak izan ziran egunean ordu bate baino gutxiago (% 10) eta ordu erdi (% 11) baino gutxiago ematen


ebenen artean, baita egunean 3-4 ordu (% 13) eta 4-5 ordu (% 8) bitartean ematen ebenen artean be. Parte-hartzaileen % 14,7k ematen eban egunean 5 ordu baino gehiago, harik eta egunean 7 ordu baino gehiago igaroteraino.

"Euskadiko adikzinoei buruzko galdetegiaren" datuen arabera (2017), 15-34 urte bitarteko adin-tartean, parte-hartzaileen % 30 inguruk egunean ordu bate inguru erabilten eban Internet. Portzentajea % 35,5koa izatera heltzen zan egunean 2-3 ordu bitarteko kontsumoan. Halanda ze, egiaztatu ahal izan dogu 2017an Euskadin izan zan kontsumo-patroia bat datorrela 2020an Mungialdean erregistratutakoarekin; izan be, egunero Internet 1 eta 3 ordu bitartean kontsumitzen daben horreetan kontzentretan dira portzentajerik handienak, eta ikerketa bietako joerak antzekoak dira.

"Drogak eta Eskola IX" txostenean, emaitzak antzekoak ziran; halanda be, ikasleen portzentaje handiagoak egunean ordu bate baino gutxiago kontsumitzen eban Internet. Kontsumoaren maiztasuna handitzen dabilen seinale izan leiteke datu hori.

Prebalentzia	"Drogak eta Eskola IX" 2016-2017	"Euskadi eta Drogak" 2017	Mungialde 2020
1 ordu baino gutxiago	% 25	% 13,4	% 21
1 ordu inguru		% 30,1	
1 eta 2 ordu bitartean	% 20,5		% 23
2 eta 3 ordu bitartean	% 14	% 35,5	% 20,5
4 eta 5 ordu bitartean	% 5,6	% 11,6	% 8



Sare sozialen erabilerearen prebalentziei jagokenez, egunero WhatsApp zan gehien konsumitzen dana (% 85,5), eta, ondoren, Instagram (% 68,6), Youtube (% 56,6) eta Twitter (% 38,4).




Zehatzago, Instagramen eta WhatsAppen **eguneroko konsumo-ohiturei** jagokenez, % 35ek egunean 1 eta 2 ordu bitartean erabiltzen ebezan sare horreek, eta % 29k, berriz, egunean ordu erdi inguru.

"Drogak eta Eskola IX" txostenagaz konparauta, laginaren zatirik handienak (% 21,1) egunean ordubete baino gutxiago erabiltzen eban, eta % 20,5ek egunean 1 eta 2 ordu bitartean. Datu horreek bat datoz Mungialdeko gazteen datuakaz.

Instagram eta WhatsApp egunero erabiltzen emondako denpora




Generoari jagokenez, **Instagramen** kasuan, gizonak dira sare sozial hori gehien konsumitzen dabenak, bai azken hilabeteetan (% 61,5), bai egunero (% 54). Azken asteko konsumoari jagokenez, ez dago alde nabarmenik genero bien artean.




WhatsApp jagokenez, erabilerearen eta generoaren arteko aldeak esanguratsuak dira maiztasun desbardinetan. Azken astean, emakume baino gizon gehiagok erabili eban WhatsApp, baina azken hilabeteetan eta egunero ia bardinak dira kopuruak.


Facebooki jagokonez, ez egoan ia alderik Facebook inoz erabili ez ebenen edo azken astean erabili eben gizon eta emakumeen artean. Azken hilabetean eta egunero, gizonen portzentajea emakumeenaren bikotxa zan. Halanda ze, ondorioztatu geinke, sare horrek ospe gitxien badauka be, erabiltzailerik gehienak gizonetzkoak dirala.



Youtuberi jagokonez, noizbehinkako konsumoan emakumeak dira nagusi, bai azken hilabetean (% 87), bai azken astean (% 62); ostera, eguneroko konsumoa handiagoa da gizonen artean (% 70).




Twitterren erabilereari jagokonez, ez dago alde nabarmenik gizonen eta emakumeen artean, izan be, maiztasun desberdinakoko konsumoaren portzentajeak ia berdinduta dagoz.




Sare sozialak aisialdirako modu barriagoak diran arren eta kaltegarriak ez dirala emoten dauen arren, hareekazko menpekotasun-portaerek arriskuak eragin ahal dabez, besteak beste, loaren nahasmentuak, sedentarismoa, isolamentua, suminkortasuna eta jokabide aldaketak.

Erabilereari lotutako arriskuaren perzeptzioari jagokonez, gitxiengoak hautematen dau arrisku handia sare sozialen erabilereari lotuta. Laginaren % 33,3k adierazo dau noizbehinkako konsumoak ez daukala ezelango arriskurik, eta % 40,5ek arrisku ertaina daukala. Ohiko konsumoari jagokonez, laginaren % 20,6k uste dau ez dakarrela ezelango arriskurik, eta % 37,8k arrisku ertaina dakarrela.



Konsumoaren prebalentzia orokorrek adierazo dabe Mungialdeko gazterik gehienek, % 70ek baino gehiagok, ez dabela inoz **ausazko jokorik** erabili (kirol-posturak, erruletea, pokerra, bingoa). Dana dala, azken hilabeteen gehien jokatu dana bingoa izan da (% 11,5), eta, ondoren, kirol-posturak (% 8,8).








Bideo-jokoan erabilereak eredu guztiz desbardina dauka: Mungialdeko gazteen % 71,7k nonoz jokatu dau, % 15,8k azken hilabetean, % 27,8k azken astean eta % 20k egunero.

“Euskadi eta Drogak (2017)” txostenean jasoten diran datuakaz alderatuta, Mungialdeko gazteek kasinoko eta bingoa jokoetan parte hartu dabe, neurri handiagoan, bai bizitzan nonoz, bai azken astean. “Drogak eta Eskola IX” txostenean, laginaren % 70ek ez dau inoz posturarik egin, eta Mungialdeko Adikzinoen V. Planean jasoten diran datuek be antzekoa islatzen dabe, hau da, Mungialdeko gazteen datuak antzekoak dira.



Prebalentzia	"Euskadi eta Drogak" 2017			Mungialde 2020		
	Posturak	Kasino jokoak	Bingoa	Posturak	Kasino jokoak	Bingoa
Inoz ez	% 2,6	% 98,8	% 98,7	% 76	% 83	% 70,4
Azken astean	% 1,7	% 0,1	% 0,1	% 2,7	% 0,6	% 2,3


Generoari jagokonez, **kirol-posturen, erruletearen, pokerraren eta bideo-jokoan** kasuan, erabiltzaile nagusiak gizonak dira, eta **bingoaren** kasuan, portzentajeak bardinduago dagoz.



Jokoetan eta posturretan inbertidutako diruari jagokonez, persona askok (% 59,7) esan dabe ez dabela inoz diririk gastau jokoetan. Asteko batez besteko gastua aztertzean, laginaren gehiengoak 10 € baino gutxiago gastau ebala adierazo eban (% 11,1). Zifra horreek Mungialdeko Adikzinoen V. Planean eskuratutakoak baino hobeak dira, orduan % 50,5ek adierazo eban-eta astean 10 € baino gutxiago jokatzen ebala.




Kirol-posturen eta ausazko jokoen eskuragarritasunari jagokonez, erantzun dabenek adierazo dabe sartzeko zailtasunak dagozala.



Sarbide nagusia establezimentu espezializatuak ziran, eta, ondoren, gailu elektronikoak.




Azkenik, **apustuei eta ausazko jokoei lotutako arriskuaren perzeptzioari** jagokonez, laginaren % 40,5ek adierazo dau noizbehinkako praktikak arrisku ertaina dakarrela, eta % 52,5ek ohiko praktikak arrisku handia dakarrela.




3. SUBSTANTZIEN GANEKO INFORMAZIOA

Mungialdeko ikasletik gehienek (% 52) adierazo dabe ozta-ozta informauta dagozala.




% 30ek adierazo dabe informazio hori ikasgeletan jaso gura leukiela, prebentzino-ekintzen bidez.



4. ALKOHOLAREN EDO OSTERANTZEKO DROGEN KONSUMOARI LOTUTA DAGOZAN ARRISKU-EGOERAK

Trafiko-istripuak dira nagusi (% 81,7), eta, ondoren, poliziagaz izandako arazoak (% 78,1) eta borrokak (% 77,1).

Drogen konsumoari lotutako arriskuak



“Euskadi eta Drogak” (2017) txostenean, alkoholaren edo beste droga bartzuen konsumoaren ondorioz bizi izan diran arazorik ohikoena aztertzen dira. Identifikatutako arazo nagusia gura bako jausialdiak edo kolpeak izan ziran (% 6,3), eta, horreen ostean, lagunakaz (% 6) edo ezezagunakaz (% 5,2) eukitako eztabaidak edo borrokak. Mungialdeko gazteen artean, emaitzak antzekoak dira; borrokak hirugarren postuan egozan, eta jausialdiak edo kolpeak laugarrenean.

5. ONDORIOAK

AISIALDIA ETA DENPORA LIBREA

- Galdetegiari erantzun deusien personentzako jarduerarik arrakastatsuenak honako honeek dira: “Lagunakaz egotea” (% 89), “Musika entzutea” (% 84), “Kuadrilleagaz egotea” (% 80) eta “Kirola egitea” (% 69).
- Azpimarratzekoa da % 67 kirol, musika edo aisialdiko alkarteren bateko kidea dala.
- Aisialdiko jardueretarako astero daukien diru kopuruari jagokonez, laginaren ia erdiak 5 €-tik behera gastetan dau, eta gazteen kopuru txikia da 20 €-tik gora gastetan dauena.

LEGEZKO EDO LEGEZ KANPOKO SUBSTANTZIEN KONSUMOEI JAGOKENEZ

- Gehien konsumitzen diran substantziak alkohola, tabakoa eta zigarro elektronikoak eta kalamua dira.
- Egunero gehien konsumitzen dan substantzia tabakoa da. Baina datuak datu, azpimarratzekoa da galdetegiari erantzun deusien erdiek baino zeozertxu gehiagok ez dabela inoz probau tabakoa, ez ohiko zigarroak (% 62,7), ez elektronikoak (% 66,5).
- Hainbat azterlanetan jasoten dan legez, “Estudes” txostenean (2019), besteak beste, alkohola da Espainiako ikasleen artean hedatuen dagoan substantzia. Mungialdeko datuak positiboagoak dira; izan be, kasu horretan gazteen ia erdiek (% 47,5) adierazo dabe inoz ez dabela substantzia hori probau, eta heren batek (% 29), gitxi gorabehera, azken hilabeteen konsumidu dabela. Gauza bera gertatzen da “Drogak eta Eskola IX” txosteneko datuakaz alderatu ezker; bertan jasoten danez, EAEko gazteen % 40k alkohola konsumidu eban azken hilabeteen, eta Mungialdeko datua % 29koa da. Konsumoak asteburuetan edo abagune berezietan izaten dira batez be.
- Alkoholaren kasuan, maiztasuna edozein dala be, Mungialdeko gazteen konsumoa biztanleria osoarena baino txikiagoa da, eta emaitzek orain dala 3 edo 4 urte baino datu baikorragoak islatzen dabez.

- Kalamua da Mungialdeko gazteen artean gehien konsumitzen dan hirugarren substantzia; % 33k onartzen dau konsumidu izana. Hala eta guzti be, antzeko beste azterlan batzuetan eskuratutakoak baino hobeak dira datu horreek.
- Mungialdeko gazteen artean beste substantzia batzuen konsumoa txikiagoa da. Hala eta guzti be, haxixaren ostean, mediku-errezeta bako nasaigarriak dagoz, eta kokaineak eta anfetaminek oso hurretik jarraitzen deusie.

SARE SOZIALEN, BIDEO-JOKOEN, KIROL-LAGUNTZEN ETA INTERNETEN erabilereari buruz

- Egunero gehien erabilten diranak WhatsApp, Instagram eta Youtube dira. Gitxien erabilten diranen artean dago Facebook (% 80,5ek ez dau inoz erabili).
- Ausazko jokoen eta kirol-posturen kasuan, gehienek esan dabe ez dabela inoz jokatu. Baina jokatzen daben personen artean, bingoan eta kirol-posturetan jokatzen dabe batez be.
- Bideo-jokoen kasuan, ostera, nabarmen egiten dau gora horreek erabilten dituen personen kopuruak; izan be, Mungialdeko gazteen % 71,7k jokatu dau nonoz, eta % 20k egunero.

ADINA aldagaia aztertzean

- Tabakoaren konsumoa eta adina arlo estatistikoan lotuta dagozala ikusi daiteke. Adinak gora egin ahala, tabakoa konsumitzeko maiztasunak be gora egiten dau.
- Alkoholaren kasuan be gauza bera pasetan da. Halanda ze, 15 urte dituenarako gehienek probauta daukie alkohola.
- Beste substantzia batzuek gertatzen dan legez, kalamuaren kasuan be gorakadea igarten da 15 urtetik aurrera. Adinik handieneko personen datuak aztertuta, ondorioztatu leiteke haren konsumoa oso zabaldua dagoala.

Konsumoen arteko aldeak, GENEROAREN arabera

- Tabakoari jagokonez, neskek mutilek baino gehiago konsumitzen dabe substantzia hori noizean behin. Ostera, mutilek konsumitzen dabe gehien tabakoa egunero. Datuak "Euskadi eta Drogak" (2017) azterlanean lortutakoakaz konparau ezker, mutilek puntuazino altuagoa euki dabe tabako konsumoaren maiztasun guztietan. Azterlanetan islatutako aldeak oso txikiak diran arren, ondorioztatu leiteke konsumoan emakumeen eta gizonen artean dagoen genero-arrakala historikoa murriztu egin dala.
- Alkoholaren kasuan, tabakoaren kasuan legez, ez dago alde handirik konsumoei jagokonez. Neskek puntuazino altuagoa euki dabe noizbehinkako alkohol konsumoan, eta mutilek, aldiz, ohikoagoak diran konsumoetan.
- Kalamuaren kasuan be oso antzeko konsumoak islatzen dira Mungialdeko neska eta mutil gazteen artean. Halanda be, alderik handienak eguneroko konsumoan agertzen dira, egunero konsumitzen dabenen % 80 mutilak dira-eta.
- Sare sozialen kasuan ez dago eredu argirik; izan be, horreetako batzuetan neskek eukiten dabe puntuazino altuagoa, eta beste batzuetan, mutilek. Ondorioztatu leiteke erabilerea oso zabaldua dagoala bai nesken bai mutilen artean.
- Ostera, kirol-posturetan, erruletan edo pokerrean jarduten daben gehienak gizonak dira. Bingoaren kasuan, bi generoen arteko portzentajeak bardinduagoak dira.
- Eta, azkenik, bideo-jokoen erabilerari jagokonez, konsumo-maiztasun guztietan nagusi dira gizonak, argi eta garbi.

KONSUMORAKO LEKUEI jagokonez

- Zigarro elektronikoen zein ohikoen kasuan, konsumitzeko lekuri gogokenak aire zabaleko espazioak izaten dira, kaleak edo plazak. Etxean zigarro elektronikoa konsumitzen dira gehiago; lonjetan, barriz, zabalik egozanean, tabakoa konsumitzen zan batez be.
- Alkoholdun edarien kasuan, tabakoaren kasuan legez, konsumitzeko lekuri gogokenak aire zabaleko guneak izaten dira, eta, horreen ostean, lonjak.
- Beste substantzia batzuen kasuan, patroia antzekoa da.

Substantziak lortzeko ESKURAGARRITASUNARI edo erraztasunari jagokonez

- ESTUDES azterlanean erregistrau diran datuetan ikusi zan legez, tabakoa eta alkohola dira gazteentzat substantziarik eskuragarrienak.
- Haxixa edo marihuana eskuratzea be ez jake gatx egiten.
- Emoten dau ganerako substantziakaz zailtasun handiagoak egon leitekezala, persona askok ez deustie-eta galdera horri erantzun. Baina, horreen artean, bat datoz adierazota kokaina dala eskuratzen errazena.
- Sare sozialen eskuragarritasunari jagokonez, gehienek esan dabe ez dabela ezelango arazorik horreetara sartzeko, edozein gailu elektronikotatik egin ahal dabelako. Ostera, ausazko jokoetan eta kirol-posturetan zailtasun handiagoak daukiezala adierazo dabe; izan be, persona asko establezimentu edo lokaletara joan ohi dira, eta adingabeek galarazota daukie sartzea. Hala eta guzti be, adingabe batzuek esan dabe lokaletan jokatzen dabela eta posturak egiten dabezala.

FAMILIA-EREMUKO KONSUMOEI jagokonez


- Erdiek baino gehiagok adierazo dabe familia-ingurunean tabakoa konsumitzen dala, batez be hareekaz bizi diran beste senide batzuen aldetik, eta, horreen atzetik, gurasoen aldetik.
- Tabakoaren kasuan legez, galdetegiarri erantzun deustien personen familien erdietan baino gehiagotan alkohola konsumitzen da, batez be gurasoen edo legezko arduradunen artean.
- Etxeko haxix/marihuana konsumoaren ganeko datuak aztertuta, ondorioztatu leiteke aldaketea egon dala; izan be, konsumitzen daben senitartekoak dituela adierazo dabenen artean, beste senide batzuk dira konsumitzaileak, eta haren atzetik neba-arrebak dagoz.
- Ganerako substantziei jagokonez, persona askok ez dabe erantzun, baina ondorioztatu leiteke familia-ingurunean gehien konsumitzen diran hurrengo substantziak nasaigarriak dirala.

Substantzien ganean daukien ARRISKUAREN PERZEPZINOA

- Tabakoaren kasuan, laginaren erdiarentzat arriskutsua izan leiteke bai ohiko bai noizbehinkako konsumoa. Zigarro elektronikoei jagokonez, arriskuaren perzepzinoa neurrizkoagoa da. Konsumoaren maiztasuna gorabehera, ohiko zigarroak baino kaltegabeagotzat hartzen dira.
- Alkohologaz be antzekoa pasetan da. Laginaren erdiaren ustez, ohiko konsumoak zein noizbehinkakoak arriskua eragin leikie.
- Gure gizartean kalamua normalizauta dagoan arren, Mungialdeko gazterik gehientzat ohiko konsumoak arrisku handia dauka haren osasunerako.
- Ganerako substantzien kasuan, arriskuaren perzepzinorik handiena heroineagaz gertatzen da, eta, ondoren, kokaineagaz. Ostera, nasaigarrien kasuan, arriskuaren perzepzinoak behera egiten dau. Horren arrazoia izan leiteke azterlanean parte hartu daben personen familia-inguruneetan gehien zabaltzen dan substantzietako bat dala.
- Ostera, sare sozialen eta Interneten kasuan, oso persona gitxik sumatzen dabe euren erabilereari lotutako arrisku handia, erabilerearen maiztasuna zein dan kontuan hartu barik.

EZAGUTZEI jagokonez

- Adin horreetan oso ohikoa da benetan dakiguna baino informazio gehiago dagoala pentsetea. Hala eta guzti be, azterlanean parte hartu daben personen erdiek baino gehiagok uste dabe ia "ozta-ozta informauta" dagozala.
- Informazioa jasoteko biderik interesgarrienak gaian adituak diranek egindako tailerrak eta berbaldiak dira, eta, horreen ostean, edozein osasun-eragilek emoten dauen informazioa.
- Haren eretxiz, informazio objektiboa, egiazkoa eta kalidadezkoa izateak lagundu egin ahal deustie substantzien konsumoaren ganeko arriskuaren perzepzinoa handitzen eta substantzia horreei modurik osasungarriean aurre egiten.



ARLOEN EKARPENAK, UDAL BALIABIDEAK ETA MUNGIALDEKO BIZTANLEAK

Mungialde Mankomunitatearen errealitatea ezagutzeko eta aztertzeko, Mankomunitateko edozein udalerritan bizi diran edo lan profesionala egiten daberen pertsonen eretxiak eta balorazioak jaso dira. Era berean, antzemon ahal dabezan beharrak eta etorkizunean garatu beharreko ekintzen proposamenak jaso dira. Horretarako, **21 alkarrizketa** egin dira udal-arlo eta -baliabide desbardinakaz, **2 eztabaida-talde** antolatu dira **5 ordezkari** gaz, **telefono bidezko 60 alkarrizketa** egin dira eta **WhatsApp bidezko 107**. Eskola-diagnostikoa egiteko, hainbat ikastetxetako **442 neska-mutilek** parte hartu dabe, baita ikastetxeetako zuzendaritza- eta orientazio-taldeek eta **3 guraso** alkartek be.

PARTE-HARTZAILEAK

MANKOMUNITATEKO UDALERRIETAKO ORDEZKARITZA POLITIKOA
Mungiako Gizarte Ekintza, Bardintasun eta Gazteria Arloa.
Gamiz-Fikako Alkatetzea.
Arrietako Gizarte Ekintza Arloa.
MANKOMUNITATEKO UDALERRIETAKO GIZARTE ZERBITZUAK, GAZTERIA, KULTURA ETA EUSKERA ARLOKO PROFESIONALAK
Mungialdeko Mankomunitateko Gizarte langilea.
Mungialdeko Mankomunitateko Gizarte psikologoa.
Mungiako Udaleko Gazteria Saila (Kultura teknikariak eta Gaztegunea).
Bakioko Kultura eta Euskera Saileko teknikariak.
Laukizeko Kultura Saileko euskera teknikaria.
Meñakako Kultura Saila.
Mungialdeko Mankomunitateko Gizarte eta Hezkuntza-arloan esku hartzeko taldea.
Mungiako Udaleko Ingurune Edegiko hezitzaileen taldea.
OSASUN ARLOA
Osasun Saila, Osasun Sarea (Bakio).
Gamiz-Fikako Anbulatorioko Erizaintza Zerbitzua.
Bilboko Julian de Ajuriagerra Osasun Mentaleko Zentroa.
Mungiako farmaziak (Golzarri eta Gumuzio).
HERRITARREN SEGURTASUN ARLOA
Mungia eta Bakioko Udaltzaingoa.
Ertzaintza (Hurbiltzaile).
HEZKUNTZA ARLOA
Ikastetxeak (Bentades Ikastetxea, Larramendi Ikastola, IES Mungia BHI, Mungia OLH-FPB).
Guraso alkarteak (Bentades Ikastetxea, Larramendi Ikastola, IES Mungia BHI).
ALKARTEAK ETA HERRITARRAK
Kultura, kirol eta aisialdi alkarteak (Malen Skate, Azken Zarata, Gurutze Gorria, Txispeleta eta Amilotx).
Mungiako Ostalarien Alkartea, Mungiako Torpedo Gorria eta Irudi tabernak, eta Bakioko Txoberne taberna.
Mungialdeko herritarrak (107 emakume eta 60 gizon).

Ekarpen guztiak jarraian dagoz laburtuta.

ADIKZINOEN V. PLANAREN BARRI IZATEA

Arlo edo baliabideren bateko personarik gehienek ezagutzen dabe indarrean dagoan Adikzinoen Plana, eta plana egiten be parte hartu eben. Konsultautako ganerako personen % 40k gitxi gorabehera ezagutzen dabe, eta % 30ek bertan agertzen diran ekintza edo programa batzuetan parte hartu dabe.

Ekintzarik ezagunenak hezkuntzearen esparrukoak dira (eskola-umeei eta familia-eskolei zuzendutako prebentzino-ekintzak), baita komunitatearen eremuan be (osasunaren ganeko jardunaldiak urtean behin eta beste informazino-kanpaina batzuk). Eta gitxien ezagutzen diranen artean dagoz gazteriarri zuzendutako ekintzak, sexologia-arloko aholkularitzea, neurri alternatiboen programea edo prebentzino-tailerrak udalerrri mankomunatueto Gazteguneeetan.

Ikastetxeek Mankomunitateko Prebentzio Zerbitzuagaz koordinauta lan egiten dabe, eta prebentzino-programen erabilgarritasuna azpimarratzen dabe. Bestetik, alkarteek daukie zerbitzu horren barri gitxien eta haregaz hartu-emonik gitxien.

ALKOHOL KONSUMOA

Oro har, jaso diran perzepzinoek islatzen dabe alkoholaren konsumoa oso hedatuta eta orokortuta dagoala, eta goizegi konsumitzen hasten dala (13 edo 14 urtegar).

Gaur egun, gazteen artean normalizauta dago graduazino handiko edarien konsumoa, eta sano erraz eskuratu ahal da bez edari horreek. Konsumoa gazteen lonjetan egiten dabe, alkarbizitza-arazo asko eraginda, edo botiloi-guneetan. Azken horreei jagokenez, ikusi da baso-eremuetara eta eremu urrunetara lekualdatu dirala, kontroletan gatxagoak diralako, eta zaborrak eta hondakinak pilatu ohi dirala inguru horreetan.

Halanda be, uste dabe une honetan oso errotuta dagoala pintxo-potea nagusiagoen artean. Alkoholaren konsumoa beste konsumo batzuek lotuta egon ohi da, tabakoagaz edo kalamuagaz.

Bestetik, alkoholismo arazoak dirala-eta tratamentuan dagozan personak, batez be, 55 urtetik gorakoak dirala adierazo dabe. Alkohola eta elikadura txarra dira gizarte-zerbitzuen esku-hartzeen xede diran kolektiboei, bazterkeria egoeran dagozanei, eragiten deutseen arazo nagusiak.

Nabarmendu dabe, modu berean, Mankomunitatean ez dagoala autolaguntzino talderik alkoholismo arazoak dituen personentzat eta hareen familientzat, eta Bilbora joan behar dala horreetan parte hartzeko; horrek persona askoren gogoa murriztuten dau. Eskualdean halango baliabiderik egongo balitz, bertaratzeko gogoa handituko litzateke. Era berean, jasota itxi dabe menpekotasuna daukien personen zaintzaileentzako tailerrak egiten diran arren, ez dala konsumo arazoak dituen personen senideentzat halakorik egiten, eta hori inplementau beharreko ekimen ona izan daitekeala.

Azkenik, nabarmentzekoa da Bakioko eta Mungiako hainbat udaltzainek aitatu dabela genero-indarkeriako kasuetan alkohol konsumoa presente egon ohi dala, alde batetik edo bietatik; hori kontuan hartu beharreko puntua da prebentzino-ekintzak baloreterakoan. Zehaztu dabe ez dakiela lehenengo konsumoak gertatzen diran, eta gero indarkeria-egoerak, edo kontrara.

Covid 19-ak eragindako pandemiak eta itxialdiak eragina izan dabe konsumoaren maiztasunean zein kopuruetan. Bizi izandako egoerak lagundu ahal izan dau lehenagotik etozen konsumo problematikoak ikusiarazoten; konsumo horreek ez dagoz gazteei bakarrik lotuta, helduei be eragiten deutsee-ta.

TABAKOAREN KONSUMOA

Alkohol konsumoaren ostean, ondorioztatu da tabakoaren konsumoa dala osasun publikoaren arloko beste arazo handi bat. Batez be, helduen artean; izan be, nerabeen eta gazteen artean, kalamuaren konsumoak bigarren postu hori kendu deutso tabakoari. Ikastetxeek datu hori berretsi dabe, eta adierazo dabe gaur egun tabako gitxiago erreten dala, baina, bestetik, kalamuaren konsumoa kezkarria dala esaten dabe.

Tabakoa erreteari ixteko ohiko adina helduaroan izaten da. Farmazia batzuek tabakoa erreteari ixteko tratamendu bat eskaini dabe Osakidetza finantzautan. Halanda be, hasi diran pertsona askok bertan behera itxi dabe, ziurrenik, COVID-ak eragindako egoereagaitik; izan be, ansiedade handia eragiten dau, eta, horrenbestez, ez da erreteari ixteko unerik egokiena.

Bestetik, Mungialdeko udalerrri mankomunatueta osasun-zentroek be badaukie tabakoa erreteari ixteko programa bat. Programan banakako eta taldeko esku-hartzeak egiten dira, azken horreek Mungiako Osasun Zentroan.

KALAMUAREN KONSUMOA

Kalamua da gehien konsumitzen dan legez kanpoko drogea, batez be nerabeen eta gazteen artean. Gazteen konsumoa handiagoa da mutilen artean, kasu askotan gazteen lonjakaz lotutako errutina da-eta. Neskak ez dagoz hain presente espazio horreetan, baina joaten diranek be normaltasunez konsumitzen dabe.

Kezkagarria da adin guztien artean haren konsumoa zelan normalizau eta errotu dan ikustea. Datu hori errepikau dabe alkarriketatu gehienek. Esaten dabenez, adin desbardineta personak ikusi leitekez bide publikoan trankil konsumitzen. Normalizazino horrek arriskuaren perzepzinoa murriztuten eta konsumoa handitzen lagundu dauela uste dabe.

Eskola-inguruneeta konsumoak kezka eragin dau, eta askok adierazo dabe substantzia hori oso eskuragarri dagoala eta salmentearen kontrola areagotzeko beharra dagoala.

Herritarren Segurtasuneko agenteek adierazo dabenez, lanean arazorik gehien eragiten deutesien substantzietako bat da. Ertzaintzako Hurbiltzaile Zerbitzutik adierazo dabenez, marihuana konsumoari lotutako arazorik handienetako bat da beste substantzia batzuk konsumitzea ekarri ahal dauela, besteak beste, speed-a. Mungiako ikaste-

txe-inguruetan "Drogen Ekintza Plana" jarri dabe martxan. Horretarako, ikastetxeakaz koordinata lan egiten da, konsumitzeko ohiko lekuak eta ordutegiak ezagutzeko, holan konsumitzaileak identifiketako eta, halan bajagoko, espedientea zabaltzeko.

Kalamuaren konsumoaren ondoriozko agerraldi psikotikoen kasuak ikusi dabez farmazietan, batez be mutil gazteen artean. Era berean, kalamu konsumoak eragindako kasuak heldu dira Osasun Mentaleko Zentrora, baina ez dabe konsumo horretatik bakarrik eratorritako problematarik ikusten.

Bestetik, inguruan plantazino ugari dagozala adierazo dabe. Plantazinoak dagoz etxeetan, lorategietan eta pabiloietan. Horri jagokonez, adierazo dabe ingurunearen eta etxebizitzaren ezaugarriek (kasu askotan familia bakarrek) kalamu lan-dareak eukitea erraztuten dabela.

BESTE SUBSTANTZIA BATZUEN KONSUMOA

Esan dogun legez, alkoholaren, tabakoaren eta kalamuaren konsumoa dira hiru kezka nagusiak, baina legez kanpoko beste droga batzuk be konsumitzen dira, batez be helduen artean. Normalean, alkohol konsumoagaz batera etorten dira.

Udaltzaingoak adierazo dauenez, kokainearen konsumoa, speedarena bezala, aldez aurretik marihuanea konsumidu izanaren ondorio da gehienbat. Gizarte Zerbitzuek be berretsi dabe datu hori. Osasun Mentaleko Zentroan fentaniloa eta beste opiazeo batzuk konsumitzen dituen kasuen barri emon dabe, baita anfetamina eta kokainearen konsumoaren barri be, eta, neurri txikiagoan, erretako heroinearen kasu batzuen barri (gehienak 80ko hamarkadatik bizirik urten ebenen artean).

Bestetik, farmaziek psikofarmakoaren konsumo handiaz ohartuarazo dabe, batez be emakumeen artean; izan be, horreen mailek are gehiago egin dabe gora pandemiaren ondorioz. Gehien saltzen diran produktuetako bat dira psikofarmakoak, bai mediku-errezetea behar dabenak, bai naturalak. Era berean, kezkea adierazo dabe, mina arintzeko gero eta sendagai gogorragoak (estupefazianteak) konsumidu eta errezetetan diralako.

Edari energetikoen konsumoaren ganeko kezka be badago, gazteek, mutilek batez be, gehiegi konsumitzen dabezalako.

SUBSTANTZIA BAKO MENPEKOTASUNAK

Teknologien, sare sozialen, bideo-jokoen, ausazko jokoen eta kirol-posturen erabilera eta konsumo problematikoa gero eta kezkarriagoa da.

Ausazko jokoakazko eta kirol-posturakazko menpekotasunari jagokonez, adierazo dabe horreek detektetea eta kontroletea gatx egiten dala Interneten mugarik ez dagoalako, eta arazoak areagotu egin dirala, batez be itxialditik aurrera.

Gazteakaz behar egiten daben profesionalen artean zeozelako kezka dago posturretan gertatzen diran iruzurrakaitik. Halanda ze, azaldu dabe posturen inguruko iruzur piramidal baten inplikautako gazte talde bat identifikau dabela, espekulazino-merkatuei eta bitcoin-sistemeari lotuta.

Irakasleek adierazo dabe, hareen barri euki arren, gehientzat urruneko gaia dala eta ez daukiela informazio askorik. Halanda be, prebentzinoan eta tratamantuan behar egitearen garrantzia azpimarratu dabe, baita sektorearen publizidadea arautzearen garrantzia be.

Posturak eta jokia egiten diran lekuei jagokenez (joko aretoak, batez be), lehen ohikoa zan barruan adingabeak aurkitzea, baina kontrola areagotu danetik, arazoak gitxitu egin dira zentzun horretan. Ostera, txanpon-makinak eta kirol-posturak (tabernak) dagozan lekuetan, eskuragarritasuna erabatekoa da.

Ertzaintzeak, era berean, postura-lokaletan adingabeen presentzia kontroletako eskumenak daukaz. Adingabe horreek identifikau egiten ditue, lokalari isuna jarten deusie eta Ertzaintzearen Joko eta Ikuskizun Unidateari jakinarazoten deusie.

Gizarte arretako eta arreta psikologikoko zerbitzuek adierazo dabe ez dala jokoari lotutako kasu problematikoen kopuru esanguratsurik heltzen. Normalean, familiak izaten dira laguntzinoa eskatzera gerturaten diranak, eta jokoagazko menpekotasun arazoak alkohol konsumo problematikoagaz lotuta egin ohi dira.

Bideo-jokoei eta sare sozialei jagokenez, uste dabe gazteek txiki-txikitatik daukiela teknologia horreek erabilteko aukerea, eta, oso erabilgarriak izan daitekezan arren, kontrol handiagoa egon behar litzatekeala, bai familien aldetik, bai eskola eta erakundeen aldetik. Eta, era berean, oro har uste da plataforma horreen konsumoa ikaragarri igo dala itxialdian zehar eta itxialdiaren ostean.

Problematikoa gero eta handiagoa da, eta horrek ondorioak daukaz adingabeen errendimantuan, goizaldeko ordu txikiak arte ibiltzen dira-eta jolasten edo alkarreraginean; horrek eragina dauka hurrengo egunean eguneroko betebeharrei aurre egiteko orduan.

Bestetik, gaur egun eskola arloan dagozan bizikidetzaz arazo asko sare sozialen erabilereagaz lotuta dagoz (jazarpen egoerak, bazterketa egoerak...). Beste baliabide batzuek be gauza bera adierazoten dabe. Nerabeen eta gazteen artean sare sozialek daukien arriskuaz ohartuarazo dabe, plataforma horreetan jokabide arduragabeak izateagaz lotuta egon leitezakez-eta.

Familia-eremuan be nabarmentzen da adingabeek Interneten ordu lar emoten dabela eta egoera horreek kontrolatuko zailtasunak dagozala. Autortzen dabe komuniketako moduak aldatu egin dirala, baina sare sozialak, arduraz erabilten ez badira, arriskutsuak izan daitezkezala.

Gazteentzako gune batzuetan, bideo-jokoen edukiak kirol-arloko bideo-jokoetara eta karaokera mugatu dira, kasurako, beste mota batzuetako bideo-jokoen kontsumoa ez sustatzeko.

KONSUMOEN ARTEKO ALDEAK GENEROAREN ARABERA

Parte hartu daben personek ez dabe alde handirik ikusten gizonen eta emakumeen arteko kontsumoei jagokenez. Hala eta guzti be, substantziaren arabera aztertzen badogu, argi eta garbi ageri dira genero-ikuspegiak dakarren aldeak.

Alkoholaren kontsumoa nahiko antzekoa da gizonen eta emakumeen artean; halanda be, ikusi ahal izan dituen intoxikazio etilikoko kasurik larrienak nesken artean gertatzen dirala adierazo dabe.

Emakume nagusiagoen alkohol kontsumoa eremu pribaduan eta ezkutuan gertatzen da. Datu hori kezkarria da, gizonetzkoen kontsumoa antzemotea baino gaxagoa da-eta, azken horreen kontsumoa giro sozialagoetan gertatzen dalako.

Tabakoaren kontsumoan be ez da alde nabarmenik igarri. Bakarrik esan behar da neskak gero eta goizago hasten dirala kontsumitzen (12 edo 13 urte dituenean).

Legez kanpoko drogei jagokenez (batez be kalamua), kontsumoa eta "trapitxeoa" gizonen artean gertatzen da batez be. Bestetik, neskek kalamua noizean behin erretzen dabe, aisialdiagaz eta inguru sozialakaz lotuta.

Psikofarmakoen kontsumoak be kezka sortzen dau emakumeen artean.

Azkenik, substantzia bako adikzinoei jagokenez, erabilera eta abusua nabarmen handitu dirala ondorioztatzeaz gainera, esan leitezake bideo-jokoak, kirol-posturak eta ausazko jokoak (online zein joko-aretoetan) askoz be hedatuago dagozala mutilen artean.

Sare sozialek ekarri ahal daben arriskuaz be ohartuarazo dabe, batez be nesken artean, horreek eukiten dabez-eta portaerarik arduragabeenak. Tik-Tok, Instagram eta Snapchat plataformak dira gehien erabilten diranak.

BESTE EGOERA BATZUK: GAZTEEN LONJAK

Gazteen lonjak gazteentzako bilgune bihurtu dira, izan be, 15 urtetik aurrera ez dabe eurentzako leku aproposik aurkitzen Gazteguneeetan. Datu horrek kezka sortzen dau konsultatuko hainbat eragileren artean.

Ertzaintzeak kontsumo problematikoko nagusienetako batzuekaz lotzen ditu lonjak, baina, era berean, adierazo dau agenteak salaketa bat egin danean bakarrik sartzen dirala barrura; kasu horretan, bertan substantziak aurkitzen badabez, behar diran atxilotetak egiten ditue.

Udaltzaingoa errazago sartzen da, eta arrazoi txikiagoakaitik (zaratea, desordena, bizilagunakaz arazoak), haren esku hartzea eskatzen da-eta.

Gaur egun lonjak itxita dagoz pandemiak eragindako murrizketen ondorioz. Halanda ze, gazteak kaleetara mugitu dira edo pabiloiak alokatzeko hautua egin dabe; horreetan "trapitxeoak" egiten dira, marihuana plantazioak instalatu dira...

EKINTZA-PROPOSAMENAK

Adikzinoen Plan honetan parte hartzen daben personek gehien errepikatu dituen proposamenak jaso doguz, osasunaren sustapenagaz eta adikzinoen prebentzioagaz edo murrizketeagaz loturea daukienak.

- **Osasuna sustatzeko ekintzen plangintzan**, adingabeak eta gazteak ezeze, beste adin-tarte batzuk eta arrisku-kontsumoaren aurrean bereziki kalteberak diran beste kolektibo batzuk be kontuan hartzea, besteak beste, gizarte-bazterkeria egoeran dagozan kolektiboak eta migratzaileak.

- **Edozein adin-tartetan ohitura osasungarriak sustatzea**, esate baterako, atentzinoa elikadura osasungarrian eta jarduera fisikoan jarrita. Espazio publiko gehiago gaitzeko aukerea aztertzea, baita kirol-ekipamentuen ordutegiak zabaltzeko aukerea be (herritarren benetako beharrakaz bat egiteko).
- **Adin guztiei zuzenduta, jarduera fisikoaren banakako orientazio- eta aholkularitza-zerbitzua abian jarri daiten bultzatzea.**
- **Haurrei eta nerabeei zuzendutako kultura- eta aisialdi-eskaintzea zabaltzea.** Batez be 12 eta 16 urte bitartekoentzat, eta, batez be, asteburuetan. Proposamen legez, inplikauta dagozan eragile guztien artean (guraso alkarteak, ikastetxeak, kirol eta kultura alkarteak) lankidetzat-sare bat sortzea proposatu dabe, eskaintza erakar-garriagoa izan daiten.
- **Familia-aisialdiko programak sustatzea.**
- **Eskola eremuan prebentzino-programak mantentzea.** Ikastetxeakaz koordinatuta, sortzen diran premina eta errealidade desbardinatara eten barik egokituta; eta txikitatik.

Ilido horretatik, ekintza zehatz batzuk planteatu dira:

- Alkohol, tabako eta kalamu kontsumoen prebentzinoan eragiten jarraitzea.
- Sortzen dabilzan adikzino barrien prebentzinoa kontuan hartzea, besteak beste, jokaerazko adikzinoak edo substantzia bakoak (sare sozialak, bideo-jokoak, ausazko jokoak edo kirol-posturak), gaur egun oso kezkarriak dira-eta.
- Gazteen lekukotzak eskaintzea, euren esperientzia ezagutu ahal izateko.
- Ikasleei zuzendutako prebentzino-programak lagundu eta bultzatzea, familiei zuzendutako esku-hartze osagarriakaz, ikasgeletan landu dana eta ikusi dana kontautu, eta egoera horreen aurrean jarduteko tresnak emonda.
- Arriskuak murriztutearen ikuspegitik be lan egiten jarraitzea, adin jakin batetik aurrera debeku-mezuek baino eragin handiagoa dauka-eta.
- **Hezkuntza ez-formaleko beste espazio batzuetan egindako lanagaz osotzea, besteak beste,** Gazteguneetan, tailerren eta hitzaldien bidez, kasurako.
- **Familia eremuan prebentzino-programak mantentzea eta indartzea,** ikasgeletan egiten dan prebentzino-lanaren osogari legez.
- **Eskualdean konsumitzaileei eta haren senideei zuzendutako autolaguntzino eta babes taldeak sortzea,** baliabide horreek dituen beste eremu batzuetara lekualdatzea saihestuteko eta antolatzen diran ekintzetan parte hartzea erraztuteko.
- **Tabakoaren, alkoholaren edo beste substantzia batzuen menpekotasuna gainditzeko taldeak sustatzea edo sortzea.**
- **Adingabeei arreta soziala, gizarte zein hezkuntza arlokoa eta psikologikoa emoteko baliabideak indartzea,** hainbat ekintzaren bidez:
 - Gizarte Zerbitzuakaz koordinatuz indartzea, haurren babesari jagokonez.
 - Gizarte Hezkuntzan lan egiten daben langileen artean errefortzua handitzea.
 - Gizarte Zerbitzuak udalerrietara hurreratzea, bertako biztanleentzat irisgarriagoak izan daitezcan.
 - Herritarrek ezagutzen ez dabezan gizarte-zerbitzu, -programa eta -laguntzinoak ikusiarazotea.
- **Gizartea sensibilizetako eta kontzientzietako postura egitea,** hainbat espazio, ekintza edo euskarriaren bidez:
 - Mungialdeko udalerrietan argitaratzen diran tokiko aldizkarien bidez, osasunaren garrantziaren ganeko informazio interesgarria emotea, prebentzino-neurri nagusi legez.
 - Era berean, ostalaritza lokalak adikzinoen gaiaren ganeko gizarte-kanpainak sustatzeko leku legez aurkeztuten dira, batez be gazteei zuzenduta. Gune horreetan presentzia daukien eta substantziaren bat kontsumitzen hasten diran edo kontsumo problematikoren bat egiten dabilzan biztanleak atentzinoaren erdigunean jarrea.
 - Urtean behin egiten diran Osasun Jardunaldiak eraginkorrak dira komunitatea osasunagaz lotutako hainbat fenomenoren inguruan sensibilizetako.

- Edari energetikoen erabilereari eta abusuari eta horreen ondorioei buruzko kontzientziarazi-kanpainak egiteko beharra aitatu dabe eragile batzuek.
- Zinearen bidez gizartea sensibilizetako egiten dan lanari egin jako erreferentzia; eta, gaur egun, aitaturako gaiak jorratzen dituen filmak dagozala aitatu da, baita horreek jorratzeko erabili daitezkeza be.
- **Konsumo problematikoak hainbat modutan murriztuteko kontrol-neurriak handitzea:**
 - Adingabeei alkohola eta tabakoa legez kanpo saltzeko aukerak zorrotzago kontroletea, batez be saltokietan eta tabernetan.
 - Adingabeak joko aretoetara sartu ez daitezkan eta kirol-posturetako makinak erabili ez daiezan kontroletea.
 - Gazteen ohiko eremuak gehiago kontroletea (botiloia egiteko erabilten dituen lekuak edo lonjak).
 - Kaleetan kontrol handiagoa ezartea, batez be substantzien salerosketea dagoan guneeetan.
 - Ikastetxeen inguruetan polizia-presentzia handitzea.
- **Hainbat gizarte eragilegaz sareko lana sustatzea eta koordinetea**, besteak beste, alkarteak edo ostalaritza sektoreagaz.
- **Lan-mahai komunitario bat ezartea konsumoakaz zerikusia daukien arazoei aurre egiteko.** Mahai horretan egongo lirateke Adikzinoen Prebentzino Zerbitzua, Gizarte Zerbitzuak, Ikastetxeak, Herritarren Segurtasun Arloa, EISE, Kale-heziketako zerbitzua...
- **Adingabeen arteko konsumo egoeretan jarduteko protokolo bat sortzea**, prozesua arintzeko, kasuak egoki diran baliabideetara bideratzeko eta beste erakunde batzuek sarean lan egiteko (berbarako, Gurutze Gorriagaz, adinekoen egoitzakaz eta abarregaz).
- **Eskuragarri dagozan baliabideei buruzko gida edo ibilbide bat sortzea**, erabiltzaileek zein zerbitzu eta baliabideetako langileek ezagutu daiezan.
- **Konsumitzaileen senideentzako jarduera-protokolo bat sortzea**, honako gai hauek jasoko dituna: detekzinoan orientazioa, norengana jo, ze jarrera hartu...
- **Beste baliabide eta zerbitzu batzuetako profesionalen prestakuntzea eskaintzea**, euren rol profesionaletik lagundu ahal izateko detekzino goiztiarrean, esku-hartzean eta, batzuetan, baita kasuen jarraipenean be.

ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA-PROPOSAMENAK

Mankomunitate mailako Adikzinoen Plan Komunitarioak, lehentasunez, honako jarduketa-ildo honeetan zentru behar ditu ahaleginak, lehentasunez:

Eskaintzearen kontrola	Eskaintza murriztu daiten bultzatzea; droga trafikoa, postura-etxeak eta auzko jokoak kontroletea; eta alkoholaren eta tabakoaren sustapenari, publikizadeari eta salmenteari buruzko araudia betearazotea.
Prebentzino unibersala	Babes-faktoreak indartzea eta jarrera eta ohitura osasungarriak sustatzea, menpekotasuna eragin ahal daben jokoak saihestuteko.
Prebentzino selektiboa eta adierazoa	Eskubide legez bermatzea osasunaren prebentzinoa eta sustapena, persona eta kolektibo kalteberen preminetara egokিতuta, batez be gazteen artean.



Eta lehentasunezko esku-hartzea behar daben gune eta kolektiboakaz bat eginez, bost eremu lehenetsiko dira:

ESKAINTZEAREN KONTROLA

HELBURU OROKORRAK:

- Legez kanpoko drogen eskuragarritasuna mugatzea, horreeen kontsumoagazko eta laxotasunaren beste ondorio negatibo batzuekazko tolerantzia murriztuz.
- Alkoholen, tabakoaren eta ausazko jokoaren eskuragarritasuna eta erabilera desegokia mugatzea.

ESTRATEGIAK	PROIEKTUA / JARDUERA
1. estrategia: Trafikoaren, elaborazioaren eta legez kanpoko hazkuntzearen ganeko polizia kontrolari eustea.	• Udaltzaingoak eta Ertzaintzak ikuskapen lanak egitea.
2. estrategia: Udalerrian drogen presentzia murriztutea, kontsumoa eta trafiko txikia hartzen dabenean zonalde legez defintidutako eremuetan poliziaren presentzia areagotuta, disuasino-neurri modura.	• Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren ikuskapenak kontsumoa eta trafiko txikia euki ahal dabenean eremuetan.
3. estrategia: Herritarrak Udaltzaingoagaz eta Prebentzino Zerbitzuagaz lankidetzan aritzearen garrantziaz sensibilizatzea, indarrean dagoan legedian ezarritako arau-hausteak antzemateko.	• Udaltzaingoagaz lankidetzan informazio-kanpainak antolatzea.
4. estrategia: Adingabeei alkoholdun edariak eta tabakoa emon eta saltzeko bideak mugatzea, saltzeko debekuari buruzko informazio-kanpainen bidez.	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarrei zuzendutako informazio-kanpainak antolatzea. • Ostalaritzako lokaletara, saltokietara eta txosnetara gutunak eta informazio-materiala bialtzea.
5. estrategia: Alkoholdun edarien eta tabakoaren, ausazko jokoaren eta kirol-posturen publizitateari eta kontsumoaren sustapenari jagoenez, mugak beteten dirala bermatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Ostalaritzako establezimenduei eta saltokiei zuzendutako informazio-kanpainak, indarrean dagoan araudiari buruzkoak. • Udaltzaingoaren ikuskapen-lanak, araudia bete daiten.
6. estrategia: Adingabeei ausazko jokoetarako sarbidea mugatzea eta persona horreek babesteko lanagaz jarraitzea, ausazko jokoetan jarduteko debekuari buruzko sensibilizazio-kanpainen bidez.	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarrei eta, batez be, adingabeei zuzendutako informazio-kanpainak antolatzea. • Udaltzaingoaren ikuskapen-lanak, araudia bete daiten.

ESKARIA MURRIZTUTEA

PREBENTZINO UNIBERSAL ETA SELEKTIBOA ESKOLA EREMUAN

HELBURU OROKORRA: Eskola-inguruneke hezkuntza prozesuaren bidez, ohitura osasungarriak babesteko eta sustatzeko faktoreak indartzea, kontsumitzen hasteko adina atzeratzen eta 18 urtetik beherakoaren artean kontsumoa eta horreei lotutako arriskuak murriztutun saiartzeko.

PREBENTZIO UNIBERTSALA

ESTRATEGIAK	PROIEKTUA / JARDUERA
1. estrategia: Osasun-hezkuntzako eta Adikzinoen Prebentziorako proiektuak eta jarduerak egiten jarraitzea lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleakaz.	<p>Lehen hezkuntzako proiektua/jarduera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Osasun-hezkuntzako proiektua (tailerrak: bizikidetzeta, gizarte-trebetasunak, erabakiak hartzea...). • Tabako kontsumoaren prebentzinoari buruzko tailerrak. • Hezkuntza afektibo-sexualari buruzko tailerrak. • Prebentzinoari eta erabilera osasungarriari buruzko tailerrak sare sozialetan. <p>Bigarren hezkuntzako proiektua/jarduera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Adingabeen artean alkohol kontsumoa prebenitzeko tailerrak: emozinoen kudeaketa. • "Mimarte" proiektua, mimoaren bidez alkoholaren gehiegizko kontsumoa prebenitzea. • Tabakoaren kontsumoa prebenitzeko proiektua: "Kerik bako gazteak". • Zinearen bidez balioetan hezteak. • Gaitasun sozialei eta bizikidetzeari buruzko tailerrak geletan. • Heziketa afektibo-sexualari eta sexu aniztasunari buruzko proiektua. • Sare sozialen erabilera osasungarriari buruzko tailerrak: Ciberbullying-a. • Kirol-posturei eta online jokoei buruzko tailerrak.

<p>2. estrategia: Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleei aholkularitza, prestakuntza eta baliabideak emotea, ikasgelan osasun-hezkuntzari eta adikzinoei buruzko programak garatu ahal izateko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adikzinoen prebentzinoari buruzko prestakuntza espezifikoak. • Osasun-hezkuntzari eta adikzinoen prebentzinoari buruzko proiektu barriak eskaintzea. • Baliabide didaktikoak emoteko aholkularitza.
<p>3. estrategia: Batxilergoko, Heziketa Zikloetako eta Oinarrizko Prestakuntzako ikasleak osasun-hezkuntzan eta adikzinoen prebentzinoan trebatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sexu seguruari eta sexu transmisiozko infekzioen prebentzinoari buruzko tailerrak (Hiesa...). • Osasun sexualari buruzko tailerrak.
<p>4. estrategia: Batxilergoko, Heziketa Zikloetako eta Oinarrizko Prestakuntzako irakasleei aholkularitza, prestakuntza eta baliabideak emotea, ikasgelan osasun-hezkuntzari eta adikzinoei buruzko programak garatu ahal izateko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-hezkuntzari eta adikzinoen prebentzinoari buruzko proiektu barriak eskaintzea. • Baliabide didaktikoak emoteko aholkularitza.
<p>5. estrategia: Eskola eremuan adikzinoen prebentzinoari lotutako esperientzia eta proiektuak sustatzea askotariko jentearen artean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Prebentzinoaren arloan proiektuak abiatzeko koordinazioa eta lantaldeak sustatzea.
PREBENTZINO SELEKTIBOA	
<p>1. estrategia: Arrisku-faktoreen ondorioak murriztuteko eta ikasle zaurgarrienen artean babesa sustatzeko proiektu integralak garatzen jarraitzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • "Arriskua-Alkohola" proiektua. • Arriskuak murriztuteari buruzko tailerra: kalamua.
<p>2. estrategia: Banakako eta/edo taldeko saioak eskaintzea zaurgarritasun egoeran dagozan ikasleei, laguntzinoa emoteko eta zailtasunei aurre egiteko estrategiak eskaintzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Banakako eta/edo taldekako tailerrak ikasleakaz.
<p>3. estrategia: Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Heziketa Zikloetako, Oinarrizko Lanbide Heziketako irakasleei prestakuntza, aholkularitza eta orientazioa eskaintzea, konsumitzen dabten ikasleakaz egoki jarduten jakin daien.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bilera informatiboak, prestakuntza eta aholkularitza, irakasleek eskatzen dabenen arabera.
<p>4. estrategia: Ikastetxeak legezko zein legez kanpoko "droga bako guneak" izan daitezcan sustatzea, indarrean dagoan araudia beteten lagunduz, osasuna babestuteko neurri legez.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleei zuzendutako proiektu eta kanpaina informatiboak. • Irakasleei baliabide didaktikoak emoteko aholkularitza. • Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak sensibilizatzea.

PREBENTZINO UNIBERSAL ETA SELEKTIBOA FAMILIA EREMUAN

HELBURU OROKORRAK:

- Menpekotasuna eragiten daben jokaeren aurrean babes-faktoreak indartzea eta jarrera eta ohitura osasungarriak sustatzea, familian gertatzen den hezkuntza-prozesuaren bidez.
- Familiak gaitu eta ahalduntzea, zaurgarritasuna eta arrisku-baldintzak murriztuteko.

PREBENTZINO UNIBERTSALA

ESTRATEGIAK	PROIEKTUA / JARDUERA
1. estrategia: Familientzako proiektuari jarraitzea emotea: "Guraso eskola", adin honeetako taldeakaz: 3-6, 6-12 eta 12-16 urte.	<ul style="list-style-type: none"> • Adin-tarte desbardinetan guraso eskola diseinetzea. • Guraso eskola garatzea eta martxan jartea. • Ikastetxeetan saio informatiboak eskaintzea, honako gai honeei buruz: adikzioen prebentzioa, sare sozialen erabilera eta abusua, bideo-jokoaren erabilera eta abusua, kirol-posturak eta ausazko jokoak, etab.
2. estrategia: Gurasoentzako esku-hartzeak hobetzen jarraitzea, prestakuntza-eredu barietate bitartez.	<ul style="list-style-type: none"> • Nerabeen familientzat sakontze-tailerrak. • Familiei zuzendutako saio informatiboak ikasturte hasieran. • Familiei zuzendutako online saioak.
3. estrategia: Seme-alaben heziketan kezka eta/edo zailtasunak dituenentzat orientatzea eta lagundu ahal izateko baliabide materialak emotea.	<ul style="list-style-type: none"> • Familiei zuzendutako informazio-, orientazio- eta deribazio-zerbitzua.
4. estrategia: Adingabeen familiei seme-alabak hezteko lana erraztuteko tresnak eta jarraibideak emotea, prebentzino-eragile izan daitezkan, tokiko komunikabideen bitartez (webguneak, udal aldizkariak...).	<ul style="list-style-type: none"> • Prebentzino Zerbitzuaren jardueren zabalkundea Mankomunitateko udal-errietako webgunearen, sare sozialen eta tokiko hedabideen bitartez. • Familiei material didaktikoa eskaintzeko banakako saioak.
5. estrategia: Guraso alkarteakaz batera osasuna sustatzera eta adikzioak prebenitzera bideratutako ekintzak koordinatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Guraso alkarteakaz koordinatzea eta lankidetzan jardutea.
6. estrategia: Adingabeen senideei sare sozialen, bideo-jokoaren eta Interneten inguruan hezteko lana erraztuteko tresnak eta jarraibideak eskaintzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeetan sare sozialen, bideo-jokoaren, sakelakoaren, Interneten eta abarren erabilereari eta abusuari buruzko saio informatiboak eskaintzea.

PREBENTZINO SELEKTIBOA

ESTRATEGIAK	PROIEKTUA / JARDUERA
1. estrategia: Bereziki kalteberak diran familiei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-orientazio baliabide personalizatu horren ganeke ezagupena handitzea eta haren erabilera zabaltzea: Familientzako Orientazio eta Aholkularitza Zerbitzua.	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeetako guraso alkarteakaz lankidetzan jardutea, baliabide horren barri emoten jarraitzeko. • Mungialdeko ikastetxeetako zuzendaritza taldeakaz lankidetzan jardutea, baliabide horren barri emoten jarraitzeko.
2. estrategia: Seme-alaba adingabeak dituen familiei informazioa, aholkularitza, deribazioa, baliabideak eta estrategia personalak eta sozialak emotea, drogen kontsumo problematikoz eta beste adikzio batzuekaz lotutako gaietan.	<ul style="list-style-type: none"> • Tailer espezifikoak familiakaz, haren preminak kontuan hartuta. • Familientzako banakako atentzioa.

PREBENTZINO UNIBERSAL ETA SELEKTIBOA KOMUNIDADEAN

HELBURU OROKORRAK:

- Herritarrei osasun-hezkuntzeagaz eta adikzinoen prebentzinoagaz lotutako gaiari buruzko informazioa eta aholkularitza eskaintzea.
- Bizimodu osasungarriak eta balio positiboak sustatzea jolas- eta prestakuntza-jardueren bidez.
- Menpekotasunak dituen eta bazterkeria-arrisku handia daukien pertsonari osasun-baliabideetara eta -zerbitzuetara helarazteko aukera handitzeko proiektuak babestzea.

PREBENTZINO UNIBERSALA

ESTRATEGIAK	PROIEKTUA / JARDUERA
<p>1. estrategia: Prebentzino Zerbitzuak dibulgazio-bitartekoen bidez egiten dituan esku-hartzei buruz herritarrek daukien ezagutza-maila handitzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adikzinoen Prebentzino Zerbitzuari buruzko material digital barria lantzea. • Adikzinoen Prebentzino Zerbitzuaren jardueren barri emotea Mungialdeko Mankomunidadea osotzen dabene udalerrietako tokiko hedabideen bidez. • Adikzinoen prebentzinoari buruzko baliabideen gida bat egitea. • Mungialdeko Mankomunitatearen 2022-2026 urtealdirako Adikzinoen VI. Plana aurkeztzea eta zabaltzea.
<p>2. estrategia: Arlo, udal baliabide eta erakunde kolaboratzaileei Adikzinoen Prebentzino Plana behar den moduan gauzatzeko aholkularitza emotea, esku-hartze integrala eta koordinatua lortzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Sailen arteko bileretan parte hartzea: Oinarrizko Gizarte Zerbitzua, Gizarte Ekintza eta Bardintasuna, Kultura, Gazteria, Kirola, Udaltzaingoa eta Ertzaintza. • Jai batzordeen edo osasuna sustatzeagaz eta adikzinoak prebenitzeagaz zerikusia daukien beste batzorde batzuen informazio-bileretan parte hartzea.
<p>3. estrategia: Gazteria eta kultura arloakaz sareko lana sustatzea, aisialdirako alternatiba osasungarriak martxan jarten laguntzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteria eta kulturako arduradunakaz koordinatzea: Gaztegunekak. • Gazteriaren esparruan prebentzino-eragile legez jarduten dabene alkarte eta taldeakaz koordinatzea. • Mungiako "Gazte Zabalik" proiektuaren koordinazio-bileretan parte hartzea, adikzinoen prebentzinoagaz eta osasunaren sustapenagaz zerikusia daukien dinamika martxan jarteko.
<p>4. estrategia: Umeakaz eta gazteakaz esku hartzen dabene eta osasun-eragile legez jarduten dabene gizarte-eragileei aholkularitza eta prestakuntza eskaintzea (aisialdi taldeak, Gaztegunekak, kirol eta kultura alkarteak).</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adikzinoen prebentzinoagaz lotutako prestakuntza-ikastaroak egitea begiraleentzat eta gizarte-eragileentzat.
<p>5. estrategia: Substantzia bako adikzinoei buruzko informazio- eta sensibilizazio-kanpainak egitea, ausazko jokoen eta teknologia barrien erabilera arduratsua bultzatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Udaleko beste arlo batzuekaz koordinatzea eta lankidetzan jardutea, kirol-posturei eta online jokoei buruzko informazio- eta sensibilizazio-kanpaina diseinetako.
<p>6. estrategia: Komunitate bateko kideen artean osasuna sustatzeko programa eta ekintzak sustatzea eta ezartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • "Osasunaren alde" osasuna sustatzeko urteko proiektua garatzea: ohitura osasungarriak sustatzeko eta adikzinoak prebenitzeko tailer praktikoak ume, nerabe eta gazteentzat. • Umeei zuzendutako lehen sorospenen tailerrak, Mungialdeko Gurutze Gorriagaz alkarlanean. • Honako gai honeei buruzko informazio stand-ak antolatzea: Tabakorik Gabeko Munduko Eguna, Hiesaren aurkako Munduko Eguna, komunitateko erakunde eta eragile sozialakaz lankidetzan.

PREBENTZINO SELEKTIBOA

ESTRATEGIAK	PROIEKTUA / JARDUERA
<p>1. estrategia: Adikzinoen eta osasunaren sustapenaren eremuan profesionaleri arriskuak murriztuteagaz lotutako informazioa eta baliabide didaktikoak eskaintzen jarraitzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Emaus-en Bitartean programearen arduradunei eta gizarte-bazterkeriako taldeei informazioa emotea. • Prebentzino Zerbitzuaren ekintzen eta esku-hartzeen barri zabaltzea programa horretako profesionalen artean. • Mungialdeko Mankomunitatean dagozan Bizkaiko Foru Aldundiko baliabideei informazioa eta materialak emotea.

KOORDINAZINOA ETA PROFESIOALENTZAKO BABESA

HELBURU OROKORRA: adikzinoei lotutako esku-hartze ildoetan lanean dabilzan profesionalen gaitasuna handitzea.

ESTRATEGIAK	PROIEKTUA / JARDUERA
<p>1. estrategia: Osasun-arloko profesionalakaz jarduerak eta lankidetzea sustatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Osasuna Sustatzeko eta Adikzinoak Prebenitzeko urteko Osasunaren Jardunaldia antolatzea.
<p>2. estrategia: Hainbat sistematako profesionalakaz hausnarketa bateratuak egiteko espazioak sortzea, esku-hartzeetan lankidetzea bultzatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adikzinoen prebentzinoan eta osasunaren sustapenean jarduten daberen eragileakaz lan egiten daberen lantaldeetan parte hartzea, proiektu barriak sortzeko. • Osasun Zentroakaz, Osasun Sailagaz eta Gizarte Zerbitzuakaz egiten diran bileretan parte hartzea.



PREBENTZINO SELEKTIBOA AISIALDIAN

HELBURU OROKORRA: LEGEZ kanpoko substantzien eta jokaerazko adikzinoen konsumoagaz lotutako arriskuak kudeatzeko jarrera arduratsua sustatzea.

ESTRATEGIAK	PROIEKTUA / JARDUERA
<p>1. estrategia: Jai- eta aisialdi-eremuei lotuta informazioa emontera, prebentzioa sustatzera eta arriskuak murriztutera bideratutako esku-hartzeak eta proiektuak bultzatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Tokiko jaietan alkohol-tasa neurtzeko prebentzio-kontrola antolatzea. • "Testing" proiektua (substantzien testatzea). • Arriskuak murriztuteko autozaintzeari buruzko jarraibideak emontera informazio-materiala, hainbat gizarte-eragileren eta/edo udal-arloren banatzeko.
<p>2. estrategia: Gaueko aisialdiko establezimenduetako eta joko artoetako langileei prestakuntza ematea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ostalaritzako eta txosnetako langileei zuzendutako prestakuntza.
<p>3. estrategia: Gazteen lonjetan eta kalean prebentzio-lanetan laguntzea, informazioa emonez eta arriskuak murriztuz, osasuna sustatzea helburu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Mungiako gazteen lonjen "Gazte Zabalik" proiektua koordinatutako bileretan parte hartzea, adikzinoen inguruko informazioagaz, arriskuak murriztuteagaz eta osasuna sustatzeagaz zerikusia daukien dinamika abiatuarazoteko.
<p>4. estrategia: Substantziak eukiteagaitik edo konsumitzeagaitik ezartzen diren administrazio-zehapenen ordez hezkuntza arloan ezarri leitezkeen neurriak beteteko aukerea eskaintzea arrisku-egoeretan dagozan adingabeei.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Substantziak eukiteagaitik edo konsumitzeagaitik adingabeei ezartzen jakezan zehapenen ordezko neurri alternatiboen proiektuari eustea. • Komunitadeko askotariko gizarte-eragileakaz lankidetzan jardutea, proiektu horretan parte hartu daien.